



'Altxa Burua' ekimena abian da Oñatin ere

Hausnarketa kolektiboa sustatu nahi dute, mugikorraren erabilera goiztiar eta desegokiak izan ditzakeen ondorio negatiboen inguruan





'Altxa Burua-Oñati' ekimenaren sustatzaileak, udala eta Txandako ordezkariekin batera 'Guria ebali zeike' kanpainako pegatinekin

'Altxa Burua' taldea eratu da Oñatin

- > Telefono mugikorraren erabilera goiztiarrak dituen arriskuen inguruan herritarrak kontzientziatu eta ohitura digital osasuntsuak sustatzea du helburu
- > Epe motzera, seme-alabek mugikorra jasotzeko adina gutxienez bi urte atzeratzea nahi dute, 11-12 urtetik 14ra

Gaztetxoek mugikorraren erabilerekin arduratuta eta kezkatuta dagoen guraso talde batek 'Altxa Burua' ekimena jarri du abian. Gaiaren inguruko hausnarketa kolektiboa sustatu nahi dute, eta, epe motzera, seme-alabei mugikorra emateko adina atzeratzea dute helburu, bi urte, gutxienez.

lazko azaroan inkesta bat egin zuten LH4 eta DBH2 arteko gurasoen artean -444 neska-mutikoren gurasoek parte hartu zuten-, eta %92,2k adierazi zuten mugikorra 14 urtetik aurrera eman nahiko luketela -gaur egun ohikoa da 11-12 urterekin ematea-. Are gehiago, LH4 eta LH6

arteko gurasoen %94,2k konpromisoa hartu zuten hurrengo 12 hilabeteetan mugikorrik ez emateko beraien seme-alabei. Eta, gainera, inkestan parte hartu zuten gurasoetako askok interesa azaldu zuten pornografia eta bestelako gaien inguruko lanketa egiteko.

Beraz, gaiaren inguruko kezka oso hedatuta dagoela ikusirik, 'Altxa Burua' ekimena abian jartzea erabaki zuten, beste herri batzuetako eredu jarraituz. "Garrantzitsua da gurasoak elkartzea eta gai honen inguruan ditugun kezkak partekatzea. Askotan, inertziaz erosten diegu mugikorra seme-ala-

bei, beste guztiek daukate-lako eta ez dugulako geurea baztertuta geratzerik nahi. Beraz, zergatik ez dugu gaia aztertzen gurasoen artean eta egokia izan daitekeen adin bat adosten mugikorra emateko?".

KONTZIENTZIAZIO LANA

Telefonoa emateko adina atzeratzea helburuetako bat da, baina helburu nagusia helduen kontzientzia piztea da, mugikorraren erabilera egokiaren aldeko hausnarketa sustatzea. "Ez gaude mugikorraren edo teknologia-aren aurka; erabilpen okerraren kontra gaude, eta helarduok ardura handia dugu,

geu garelako seme-alaben ereduak", argitu nahi dute. Ildo horretan, 10 gomendio jasotzen dituen dekalogoia plazaratu dute.

Apirilean dinamika berezia egin zuten DBH3-4ko gazteekin, MU adituekin batera eta Udalak finantziatuta, eta argi geratu zen gazteek ere badituztela mugikorraren erabilerekin inguruko kezka eta beharrak.

Ildo horretan, 'Guria ebali zeike' ekimena jarri dute abian (ikus informazioa ondoko orrian) Udalarekin eta herriko saltokiekin batera, eta irailtik aurrera hitzaldi eta tailer ezberdinak antolatuko dituzte, gurasoek eta gazteek azaldutako kezka eta beharrei erantzuteko asmoz.

'Altxa Burua' taldeko ki-deek uste dute herri mailan aztertu eta landu beharreko gaia dela, eta, horregatik, Udalarekin eta ikastetxeekin ere elkarlanean jarduteko asmoa dute.

'Guria ebali zeike' kanpaina abian



Oñatiko Altxa Burua taldeak '**Guria ebali zeike**' kanpaina jarri du abian, seme-alabei mugikorra emateko adina atzeratzen laguntzeko asmoz. Hala, goiko irudikoa bezalako pegatinak jarriko dituzte herriko eraikin publikoetan eta herriko hainbat saltokietako erakusleihoetan. Beraz, ume eta gazteek pegatina hori ikusten dutenean jakingo dute bertako telefonoa erabili ahal izango dutela egin beharrezko edo larrialdiko deiak egiteko, gizabidez eta errespetuz jokatuta, betiere.

> LH4-DBH2 adin tarteko gurasoen artean egindako inkestaren arabera, %92,2k mugikorra 14 urtetik aurrera eman nahiko lukete

> LH4-LH6 arteko gurasoen %94,2k konpromisoa hartu dute hurrengo 12 hilabeteetan mugikorrik ez emateko seme-alabei

ITURRIA: ALTXA BURUA-OÑATI
HERRIKO GURASOEN ARTEAN EGINDAKO GALDETEGIA

TALDERA BATZEKO

Dagoeneko 150 bat guraso batu dira Oñatiko 'Altxa Burua' ekimenera. Difusio talde bat sortu dute informazioa partekatzeko. Ekimenarekin bat egiteko, eskaneatu ondoko QR kodea.



10 GAKO

Teknologia familian

altxa burua
Oñati!



01. Eredu izan

Teknologia digitalen erabilera arduratsua eta koherentea egin. Hau da, seme-alabek imitazioz ikasten dute eta eredu izan behar gara

Komunikazio-ohitura osasungarriak sustatzeko denbora hartu, teknologia digitalek beste jarduera batzuek ez ordezkatzen. Horiek erabiltzerakoan, seme-alabak erabilera aktiboan eta sortzailean ahaldu.

02. Gidatu



Eduki digitalek balio eta eredueta hezten dute, beraz, hausatuta zure seme-alaben adin eta heldutasunari dagozkion edukiak eta mugak ezarri.



03. Aukeratu

Gailu elektronikoak etxeko espazio komunetan jarri eta erabilera partekatu bat egin. Bertako jardueraz interesatu eta hori buruz hitz egiteko espazioak zabaldu

04. Partekatu



Guraso-kontrolerako aplikazioak erabili ditzakezu eduki jakin eta interneteko orrialde batzuetarako sarbidea blokeatzeko



05. Zaindu

Pantailan gabeko jarduerak sustatu, familiarekin edota lagunekin denbora partekatzeko: irteera kulturalak, aire zabalean ekitzak, etab.

06. Erraztu



07. Ahaldu

Teknologia digitalen aukerak eta arriskuak ezagutzea garrantzitsua da, jarrera aktiboa eta positiboa izateko

Sarean dagoenari buruzko elkarriaketa eta jarrera kritikoa sustatu: dena ez da sarean zabaldu behar, eta informazio guztia ez da fidagarria

08. Eguneratu



09. Errespetuan hezi

Edozein egoera problematikoren susmoaren aurrean, aholkularitza eskatu ikasketean edo zentro espezializatu batean

Sare sozialek aurrez aurreko komunikazioaren portaera eta errespetu arau berberak bete behar dituztela irakatsi.

10. Adi egon





Emakumeen Etxearen inguruan burutu den parte hartze prozesuaren ondorioak aurkeztu dituzte

- > Etxea nolakoa izango den, eta bertan zer eta nola egingo den adostu dute.
- > Udazkenean hasiko dira etxea barrutik eraikitzeko lanak eta datorren urte amaierarako ireki ahal izatea espero dute.

Emakumeen Etxea izango denaren inguruan bi urtez luzatu den parte hartze prozesuaren ondorioak aurkeztu dituzte Udalak eta lan saioetan parte hartu duten hainbat emakumek. Guztiak bat datoz prozesu ederra, mamitsua eta oso aberatsa izan dela esaterakoan. Jone Arriolabengoak (udaleko Berdintasun teknikaria) eta Onintza Andresek (Partaidetza eta Garapen Komunitarioa saileko teknikaria) eman digute bi urte hauetako prozesuan zehar hartutako erabakien berri.

Zein da Emakumeen Etxearen inguruan egin den parte hartze prozesuaren inguruko balorazio orokorra?

Jone Arriolabengoa: Oso esperientzia ederra izan da; asko ikasi dugu eta asko eman digu prozesu honek orain arte, eta hala segiko duelakoan gaude. Gauza batzuetan gehiago asmatu dugu, beste batzuetan agian gutxiago, baina esango nuke orokorrean bete direla ezarritako helburuak: lortu dugula adostea zer den emakumeen etxea, eta giro goxoan egin ahal izan dugula gainera. Oso lan aberasgarria izan da, eta parte-hartu duten

emakumeei esker izan da hein handi batean.

Onintza Andres: Benetan mamitsua eta aberatsa izan dira prozesua bera eta emaitza. Aurreko faseetan bezala, herritarrek erakutsi duten ilusio, elkar ulertzeko nahi eta lanerako gogoaz azpimarratuko nituzke.

Prozesuaren hasierako hila batean norabidea marraztu genuen, etxea izan zitekeen hori guztiaz hitz egin. Etapa honek, berriz, argitasuna ekarri digu hainbat aspektutan. Eta garrantzitsuenak, jakin dugu hasierako ni ezberdin guzti horietatik gu amankomun baterako saltoa egiten.

Parte hartze prozesua 2022an hasi zen, baina gogoratu behar da, aurretik, 2020an, egitasmoaren inguruko diagnostiko bat egin zuela Udalak. Oñatin Emakumeen Etxe baten beharra zegoela ondorioztatu zen. Zergatik?

J.A.: Alde batetik, udaleko berdintasun arloak proiektu eta zerbitzuak eskaintzen eta osatzen jarraitzeko, beharrezko zuten espazio egoki bat. Eta bestetik, elkarrizketatu genituen emakumeek espazio propio baten beharra aipatzen zuten, bakoitzak beretik; zerbitzuentzako leku egoki baten beharra ikusten zuten batzuk, au-

to-antolaketarako eta elkartzeko lekua beste batzuk, bakardadeari aurre egiteko, indarkeria osteko indartze prozesuak laguntzeko, ondoezak partekatzeko, ikasteko... eta behar horiek guztiak batzen zituena emakumeen etxearen proiektuak.

Parte hartze prozesua abiatzeko, Emakumeen Etxea izango denaren oinarri edo printzipio gidariak adostu ziren. Zein dira oinarri horiek?

J.A: Hasieratik argi genuen emakumeen etxea ezin zela edozer izan. Berme batzuk behar zituela, eta norabide konkretu batean joan nahi genuela. Udal mailako lanketa bat egin zen eta adostasun politikoz, oinarri bat ezarri zen: Etxea feminista, ahalduzaitzailea, interseksionala eta komunitarioa izango zen, eta ardatz horien bueltan egituratu.

O.A: Eta gainera adostu zen zeintzuk izango ziren parte hartze prozesuaren mugak eta baldintzak, zein baliabide jarriko ziren prozesuari eusteko, zer zaindu nahi zen bereziki... Beti ez dugu aukera izaten parte hartze prozesu bat halako ariketa politikoko sendoarekin hastekoa, batera pentsatzeko denbora hartzekoa.

Bagenekien merezi zuela horrela hasteak, bata bestearengatik eta adostasunak bilatzetik. Eta etekina atera diogu atariko lan horri, ezinbestekoa izan bai-



JONE ARRIOLABENGOA
BERDINTASUN TEKNIKARIA

"Edozein herritarri irekita egongo da emakumion etxia, edozein dela ere bere adina, generoa, jatorria... eta ahalegina egingo dugu aniztasun hori erakartzeko"

"2024-2025 ikasturtean urrats bat gehiago eman nahi dugu eta lan taldeak martxan jartzea da asmoa. Rolan arabera parte hartzeko aukera irekiko dugu"

ta hurrengo pausuak segurtasunez eta sendotasunez eman ahal izateko.

Beste herri batzuetako Emakumeen Etxeak ezagutzen ere izan zineten. Zein ikasgai edo ondorio atera zenuen?



ONINTZA ANDRES
PARTAIDETZA TEKNIKARIA

"Ideia nagusi bat dago etxiaren gobernantza eta kudeaketa ereduaren oinarrian: bakoitzak bere onena ematea"

"Jabetze eskola, hitzaldiak, gizonen foroa, sexu aholkularitza zerbitzua eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa bertan eskaintzea aurreikusten da, besteak beste"

O.A: Uste dut bisitek lagundu zigitela ikusten izen beraren atzean oso proiektu eta ulerkera ezberdinak egon daitezkeela, eta zentzu batean, eskemak apurtzeko edo gauza batzuk zalantzan jartzeko ere garrantzitsuak izan ziren.

Proiektu bakoitzak hartu duen forma, tamaina, abiadura... tokian tokiko baldintzen arabera izan dira. Eta hala behar du. Emakumeen etxe bakoitzak tokiko berezitasunak ditu, eta horrek erakutsi zigun Oñatin ere bere berezitasun eta baldintzen arabera proiektu bat garatu behar genuela. Etxe guztiak dira inspiratzaileak, baina bakoitza erreplikaezina da, eta hori argi ikusi genuen bisitetan.

Kale Zaharreko 13 zenbakidun eraikina erosi zuen Udalak Emakumeen Etxea egokitzeko. Etxeak izango duen barne-banaketa ere zehaztuta dago. Nola-koa izango da barrutik?

J.A: Saiatu gara erabilera ezberdinak eta elkarren arteko elkarbizitza ahalbidetuko duen banaketa bat adosten, eta etxe atsegina, dialogantea eta irekia marrazten. Garrantzia berezia eman diogu harrerari eta etxeko harremantzeko moduei, bai eta erabiltzaile ezberdinen beharretara egokitzeari ere.

O.A: Egiteko ez ezik, egoteko ere baden leku bat irudikatzen saiatu gara; harreman errepikakorrek posible egiten eta sareak josten lagunduko duen espazio bat, egitasmoaren parte izateko.

Zein izango da udalaren eta etxeko kideen edo eragileen arteko harremana egitasmo honetan?

J.A: Oñatiko Emakumion etxia ekipamendu publiko bat →

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARRIZABALAGA Aroztegia
PAKITA Altzariak

Bereaz Ind. 10 Tel. 943 78 14 64
Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

→ da, herrian ezagutzen ditugun beste batzuk bezala, baina berezitasunen artean badu bat agian nabarmen-tzekoa: udala eta etxekideak daude inplikaturako proiektuan. Egongo da ordutegi bat eta egutegi bat, udalak zuzenean kontratatutako langileak egongo dira espazioa kudeatzen, baina ez da udalak bakarrik kudeatu eta gobernatutako espazio bat izango; guztion artean antolatuko gara eta eraikiko dugu.

Eta nola egingo duzue guztien arteko antolatze hori? Nola funtzionatuko du egunerokoa?

O.A: Ideia nagusi bat dago emakumion etxiaren gobernantza eta kudeaketa ereduaren oinarrian: bakoitzak bere onena ematea. Izan ere, elkarren beharra dugu: bakoitzak bere aldetik baino elkarren artean urrunago iritsiko gara. Udalak bere onena eskaintzen badu, etxekideek bakoitzaren onena eskaintzen dute, bai eta herriko bestelako elkarte edo eragileek ere. Bakoitzaren gaitasun eta indar horiek guztiak aprobetxatu nahi ditugu. Horretarako, rolen arabera lan taldeak irudikatu ditugu, eta euren arteko loturak egingo dituen rol egituratzaile koordinatzaile bat (etxeko langileak). Hierarkiak alde batera utzi eta horizontaltasuna bilatuko duen antolaketa egitura baten aldeko apustua egin nahi dugu. Ondorio horretara iritsi gara parte hartze prozesuan.



OÑATIKO EMAKUMEEN ETXEA feminista, ahalduzko, intersektionala eta komunitarioa izango da

JONE ARRIOLABENGOA ETA ONINTZA ANDRES

Nork eta zertarako erabili ahal izango du Emakumeen Etxea?

J.A: Edozein herritarri irekita egongo da emakumion etxia, edozein dela ere bere adina, generoa, jatorria... eta ahalegina egingo du gainera etxiak, aniztasun hori erakartzeko. Etxeak indarkeriari aurre egin nahi dio, hezitzailea izan nahi du, gizarte eraldaketa eragin nahi du, ahalduzko prozesuak bideratu nahi ditu, emakumeen arteko saretzeak indartu nahi ditu... eta bide horretan etor daitezkeen ekimenek izango dute lekua emakumeen etxean. Gaur gaurkoz, jabetze eskola, hitzaldiak, gizonen foroa, sexu aholkularitza zerbitzua

edo aholkularitza juridiko eta psikologikoa bertan eskaintzea aurreikusten da.

O.A: Guzti honetan, elkarbizitza kodea deitu diogunak berebiziko garrantzia izango du. Etxearen funtzionamendua eta elkarbizitza-rako arau eta akordio orokorrak jaso nahi dira bertan, norbanakoen arteko elkarbizitza ez ezik, proiektua osatzen duten ekimen ezberdinen artekoa ere landuko duena.

Ustekaberik ez bada, udazkenean hasiko dira Emakumeen Etxea barrualdetik eraiki eta egokitzeko lanak. Noizko egongo da amaituta etxea? Irekiera datarik ba al du?

J.A: 2025 urtearen amaierarako amaituta beharko luke egokitzapen lanek. Beraz, data horren bueltan ireki ahal izatea espero dugu. Bien bitartean lanean jarraituko dugu.

Bien bitartean parte hartze prozesuak jarraituko du ala oraingoz etenda geratuko da?

J.A: Parte hartze prozesua orain arte ezagutu dugun eran, amaitutzat eman dugu maiatzean. 2024-2025 ikasturtean urrats bat gehiago eman nahi dugu, eta lan taldeak martxan jartzea da asmoa. Probatzen hastea, indarrak neurtzen, eta irekierarako guztia prestatzea.

Datorren ikasturtean rolen arabera parte hartzeko aukera irekiko dugu. Hala, bere burua estrategiak eta plangintzak pentsatzen ikusten duenak lan talde batean parte hartzeko aukera izango du, eta etxearen izena eta irudia pentsatzen erosoago dagoenak beste baten, adibidez. Edo badago jendea gauzak antolatzen trebea dena; antolaketari dagokion taldean parte hartu dezake.

Lan taldeetan apuntatzeko, prozesuaren inguruan sortu dugun webgune berrian (www.oñati.eus/emakumion-etxia) formulario bat jarri dugu. Bertan izena emanda jarriko gara harremantetan bakoitzarekin hurrengo ikasturtera begira.

Beraz, herritarrak animatu nahi ditugu lan talde ezberdinetan izena ematera.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



Txondorrari ixuketako txingarra botatzen tximiniatik behera



Auzolanetan parte hartu dutenak kalejiran



Etxola eta otordutarako sua



'Txondorraren bueltan' ekimenaren sustatzaileetako batzuk



Goizuetarren 'Zahagi-dantza'

Ixutu dute Txondorra

Iragarri bezala, ekainaren 1ean eman zioten su, festa giroan, herritar talde batek San Martinen egokitu duen txondorrari. Tximiniatik kea irteten hasi orduko, auzolanetan parte hartu duten haur eta gurasoek kalejira egin zuten txondorraren bueltan, Gotzon Osinagak txistuarekin lagunduta, eta Goizuetatik etorritako txondorgile kuadrillak han ohikoa den 'Zahagi-Dantza' egin zuten.

Horrenbestez, ia amaierara iritsi da iazko azaroan hasi zen 'Txondorraren bueltan' ekimena. Antolatzaileek gogotik egin behar izan dute lan, baina pozik daude emaitzarekin, ikazkintzaz, ikazkinen bizimoduaz, basoak ulertu, zaindu eta kudeatzeko moduez... eta beste hainbat gauza ikasteko aukera ederra izan delako.

Orain, txondorrean pilatutako egurra egostea falta da. Bizpahiru aste beharko dira eta, amaieran, lauzpabost tona egur-ikatz ateratzea espero dute. Bien bitartean zaintza lanak, gau eta egun, egin beharko dituzte. Egoaldia girotzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Hala, ekainaren 8an (11:00) Eñaut eta Unai anaien bertso saioa egongo da. Gogoratu, **larunbatetan (11:00)** bisita gidatuak egingo dituztela. Merezi du San Martinetik buelta bat ematea.



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK
PERSIANAK, LERROAK, LUB FLUTARTEAK, ABIGIAK, PINTURA LANAK...





DISEÑATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDIAK, KOKONAK eta ASKATZ GONIAK
ILAKIA 12 8 4 esk. - 20500 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Kaleko 43 katurentzako etxeak aurkitzeaz gain, beste 33 antzutu ditu OKKE elkarteak lehen urtean

Lehen urteko lanaren balorazio positiboa egin du **Oñatiko Kale Katu Elkarteak**: "Asko dira kaletik atera ditugun katuak eta baldintza hobetan bizi direnak".



OKKE elkarteak adopzioan emandako katuetakoko batzuk OKKE

Oñatiko Kale Katu Elkarteak (OKKE) bere lehen urteko jardunaren balantzea egin du, eta espero zutena baino askoz emankorragoa izan dela adierazi dute: "43 katu eman ditugu adopzioan, eta beste 33 esterilizatu ditugu. Kontuan hartuz urtean bi edo hiru umealdi izaten dituztela, asko dira kaletik atera ditugun katuak eta baldintza hobetan bizi direnak".

lazko apirilean eratu zen OKKE elkarteak, kale-katuen ugalketa kontrolatzeko eta haien ongizatea bermatzeko asmoz. Jaurlaritzak 2022ko ekainean onartu zuen animalien babeserako legeak

dio tokian tokiko Udalak dirrela kaleko katu kolonien kudeaketaren arduradunak, eta OKKE elkarteak laguntzen ari zaio Udalari, legeak agintzen diona betetzen

OKKEko kideek askotariko lanak egin dituzte lehen urte honetan, eta balantzea, oro har, oso positiboa da, elkarteak Irene Morenok adierazi digunez: "Hasi besterik ez gara egin eta oraindik ikasten ari gara, baina, egiari zor, uste baino katu gehiago antzutu ahal izan ditugu, eta adopzioan emandakoen kopurua ere aurreikusten genuena baino askoz handiagoa izan da.

OKKE lanean hasi denetik Oñatiko kaleko katuen egoera nabarmen hobetu dela esan dezakegu".

HARRAPATU, ANTZUTU ETA ITZULI

Kaleko katuen populazioa kontrolatu eta, poliki poliki, murrizten joateko HAI metodoa (Harrapatu, Antzutu eta Itzuli) aplikatzen du OKKE elkarteak. "Herrian dauden koloniak identifikatu ostean, katuak harrapatu eta albaitariarengana eramaten ditugu, eta esterilizatu ondoren, beraien koloniaratu bueltatzen ditugu", azaldu digu Morenok.

Lehen urte honetan katuen sei kolonia sortu, kudeatu eta kontrolatu ditu OKKEk, Udalarekin adostutako leku ezberdinetan. Seinaleekin identifikatutako tokiak dira, eta OKKEko kideak arduratzen dira -Udalaren baimeana daukate- katuei janaria emateaz eta ingurua txukun mantentzeaz.

ADOPZIOAK

Ahal den neurrian katuak kaletik atera eta adopzioan ematen saiatzen da OKKE elkarteak. "Adin batetik aurrerako katuekin zaila da, baina oraindik gizarteratu edo sozializatzeko moduan dauden katuak harrera-etxeak aurkitzen saiatzen gara", azaldu digu elkarteak buruak. "Lehen urte honetan 43 katu eman ditugu adopzioan; helduena, 8 urtekoa, eta txikiak, 2 hilabetekoak, amarengandik banatzeko beharrezko denbora igaro ostean. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure laguntza beharrean dauden txiki hauei beraien etxeak eta bihotzak ireki dizkieten pertsoneri".

Adopzioak lege barruan egiten dituztela argitu digu Morenok. "Bakoitzak bere kontratua dauka, eta hartzaileek datuak jaso eta erregistro batean gordetzen ditugu. Adopzio arduratsuak dira denak".

"Abandonatuta, zaurituta edo beldurtuta dagoen katuren bat ikusiz gero, udaltzainei deitu. Beraiek jarriko dira kontaktuan OKKEekin, beharrezkoa bada"

IRENE MORENO / OKKE

KONTRAKO JARRERAK

Baina dena ez da positiboa izan OKKE elkartearen lehen urte honetan. "Ez. Herritar batzuk kontra daude. Ez dituzte errespetatzen katuentzako janlekuak, eta apurtu edo desagerrarazi egiten dizkigute", salatu du Morenok, indarrean dagoen legearekin hori delitua dela gogorarazteaz gain.

"Kexaren bat jasotzen dugunean saiatzan gara bizi-lagunekin berba egiten, arrazoitzen eta adosten, baina batzuek ez dute entzun nahi", gaineratu du OKKEko kideak. "Azken batean, herriko egoera hobetzeko lanean ari gara, inork ez duelako ikusi nahi gaixo dauden katuak kalean eta zaborren artean janari bila. Gure helburua da, katuak ahalik eta osasuntsuen egotea, eta kaletik ahalik eta katu gehien ateratzea, esterilizazioen eta adopzioen bidez, denon onerako izango baita. Udalari laguntzen ari gara, gure denbora eta energia eskainiz, legez berari dagokion lan bat egiten. Bestela, Udalak enpresa bat kontratatu beharko luke, askoz diru gehiago gastatuz".

OKKEren lana begi onez ikusten duten herritarrek ere badira, jakina. "Bai, herritar askok eskertu digute egiten ari garen lana, egoera asko

"Herriko egoera hobetzeko lanean ari gara. Udalari laguntzen ari gara, legez berari dagokion lan bat egiten. Bestela, enpresa bat kontratatu beharko luke"

IRENE MORENO / OKKE


hobetu dela ikusten dutelako. Egoera ez da idilikoa, noski, oraindik hasi besterik ez gara egin, eta hau eten barik egin beharreko lan bat da, eraginkorra izan dadin", azaldu digu Morenok.

LAGUNTZA BEHARREAN

Ordu asko sartzen ari dira OKKEko kideak, eta neke puntu bat ere aitortu digu Morenok, baina, hala ere, lanean jarraitzeko prest daude. "Gure denbora libreko ordu asko kentzen digu lan honek, baina zaitzen eta sendatzen ditugun katutxoak aurrera ateratzen ikusteak asko asebetetzen gaitu eta horrek ematen digu lanean jarraitzeko indarra".

Hala ere jende beharrean daudela dio Morenok eta dei egiten die herritarrei OKKE elkartearekin kolaboratzera. Lantalde ezberdinak ditugu eta laguntzeko modu asko daude, eta zenbat eta jende gehiago batu, orduan eta gauza gehiago egin ahal izango ditugu, inor erre gabe.

OKKEk eskerrak eman nahi dizkie suhiltzaileei, katuren bat erreskatatu behar izan dutenetan emandako laguntzagatik eta jarrera onagatik, eta eskerrak, baita ere, eta bereziki, elkarteko kide eta boluntarioei, eskaintzen duten denbora, maitasuna eta babesagatik.



43 KATURENTZAKO ETXEAK

Lehen urtean kaleko 43 katu eman ditu adopzioan OKKEk. Evaristo Páramos izan zen katu bat adopzioan hartzen lehena. Josunek eta Oihanak ere katu bana hartu dute etxean, eta pozik daude; "oso maitagarriak eta dibertigarriak dira; bizitasun handia ematen dute", adierazi dute.



KONTROLATUTAKO KOLONIAK

OKKE elkarteak kaleko katuentzako 6 kolonia sortu ditu Udalarekin adostutako gunetan. Katuentzako janlekua eta hotz-aurtik babesteko aterpe-kasetatxoak ipini dituzte. Elkarteko boluntarioak arduratzen dira katuei janaria emateaz eta ingurua txukun mantentzeaz. Janleku hauek beharrezkoak dira katuak osasuntsu egoteko eta harrapatu ahal izateko.



MIKEL PEREZ
ALBAITARIA

Legeak dio tokian tokiko udalen ardura dela kaleko katuak kontrolatzea, eta Oñatiko Udala OKKE elkarteko boluntarioen bitartez egiten ari da lan hori, HAI metodoa (Harrapatu, Antzutu eta Itzuli) aplikatuz. Nire ustez bi abantaila ditu: batetik, ondo elikatutako katuak edukitzeak xagu eta karraskarien populazioak modu naturalean kontrolatuta edukitzeko aukera ematen du, eta, bestetik, katuen gain-populazioa ekiditen da.



IRENE MORENO
OKKE-ko LEHENDAKARIA

Gizartean ematen ari diren aldaketa sozial guztiekin kontrako iritziak sortzen dira, baina gure inguruko katuen integrazioa eta zaintza geratzeko etorri dira. Legeak babesten ditu. Eta horretarako bide etiko eta legala esterilizazioa eta erantzukizunez egindako adopzioak dira. Bestalde, OKKE elkartetik azpimarratu nahi dugu, baimendutako tokietan eta Udalak emandako baimenarekin soilik eman ahal zaiela jaten katuei, eta katuentzako janari eskusiboa bakarrik.

Gipuzkoako Ospitalitatearen urrezko domina jaso du Mikel Korkostegik

50 urte bete ditu gaixoei laguntzen Lourdeseko erromesaldian

Erraz esaten da, baina, aurtengoarekin, 50 urte bete ditu Mikel Korkostegik Lourdesera egiten den erromesaldian gaixo eta ezinduei laguntzen, eta urte horietan guztietan eskaintako laguntza, maitasuna eta dedikazioa eskertzeko urrezko domina eman dio Gipuzkoako Ospitalitateak. "Ez da bilatzen nuen sari bat", dio berak apalki; "ez nekien zenbat urte neraman Lourdesera joaten, eta sorpresa hartu nuen deitu zidatenean. Baina pozik jaso dut, jakina". Hala ere, penatxo bat daukala aitortu digu, izan ere aurtengo erromesaldia Korpus eguneko asteburuan egokitu baita eta, ondorioz, oñatiar askok ezin izan dute han egon.

1970ean hasi zen Korkostegi Lourdesera joaten, Jose Ignazio Balzategik animatuta -honek ere jaso du urrezko domina-, eta orduz geroztik ia ia urtero joan da. "Goizeko 6:00etan hasi eta gaueko 22:00ak arte gaixoen zerbitzura egoten gara", azaldu digu Mikelek; "gurpil-aulkietan edo ohatilan daudenak alde batetik bestera eraman, jantokian lagundu, gai ez direnei oheratzen eta garbitzen lagundu, konpainia egin...". Gaixo eta ezindu askoren egoera ikustea gogorra izaten omen da, baina, aldi berean, esperientzia pertsonal sakona eta aberasgarria dela dio Mikelek. "Zeure barrura begiratu eta zein zorteko garen konturatze-ko balio du". Miraririk ez du ikusi urte hauetan guztietan, baina fedea edukitzea bera nahikoa mirari dela uste du.

Ahal duen bitartean laguntzen jarraitzeko asmoa du Mikelek, eta argi utzi nahi du, Oñatin gaixoen alde egin ohi den diru-bilketa gaixoen gastuak ordaintzeko erabiltzen dela. "Guk geure poltsikotik ordaintzen dugu egonaldia".



Goizeko 6:00etatik gaueko 22:00ak arte, gaixoei laguntzen ematen diuzte Lourdeseko erromesaldiko hiru egunak. Argazkian, gaixo bat eramaten ageri da Korkostegi.



Ekainaren 1ean, Gipuzkoako Egunean jaso zuen Korkostegik urrezko domina Gipuzkoako Ospitalitateko presidente Lupe Aranzabalen eta Fernando Prado apezpikuaren eskutik



1970ean Oñatitik Lourdesera joandako laguntzaile taldea. Ezker-eskuma: Luis Arregi, Mikel Korkostegi, Conchita Elorza, Eli Etxeberría, Eli Maiztegi, Jose Ignacio Balzategi, Mª Angeles Aranburu eta Arantxa Olalde.

Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Alastul Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

“PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

ZUNTZA 300Mb

2 MUGIKOR LINEA 19Gb
PARTEKATZEKO

DEI MUGAGABEEKIN

34'90 €/HILEAN
(BEZ barge)
Instalazioa eta
linearen kuota barge.

34'90€ lehenengo urtean; ondoren 37'90€

**Kontsultatu dendan baldintzak eta eskaintza gehiago*

DESKONTUAK:

-6€

-10€

INFORMA ZAITEZ DENDAN

PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

MÁSMÓV!L

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600





Jose Mari Arrazola Aranzadi (Pasaia), Tomás Mansilla Arrazola (Checa), Jabier Galarza Arrazola (Oñati) eta Jose Ramon Arrazola Urquiaga (Oñati), Arrazolarren topaketen sustatzaileak.

Arrazolarren Nazioarteko V. Topaketa egingo da Oñatin ekainaren 15ean

- > Checa, Belgika, Kolonbia, Mexiko, Madril, Euskadi eta beste hainbat lekutako ehun bat Arrazolar elkartuko dira
- > Aurretik, Checan (2014), Oñatin (2016), Kolonbian (2018) eta Belgikan (2022) egin izan dituzte topaketak

Munduan zehar bizi diren Arrazolarren topalekua izango da Oñati ekainaren 15ean. Arrazolarrek egiten duten era honetako bosgarren bilkura izango da eta amaiera emango dio, oraingoz behintzat, duela hamar urte Checan (Guadalajara) hasitako topaketa sortari.

Hala da, bai, Checan hasi zen, 2014an, Arrazolarren arteko istorio eder hau, izan ere, bitxia dirudien arren, Gaztela-Mantxako herri txiki hartan oso ugaria baita

Arrazola abizena; 300 biztanle eskas dira, eta %20k dauka Arrazola abizena. Jose Ramon Arrazolak azaldu digu horren arrazoia: "XVI. mende hasieran Sancho de Arrazola izeneko oñatiar bat, Olabarrietako Resusta etxekoa, Checara joan zen burdinaren arloan lan egitera eta, bistan denez, ondorengo ugari utzi zituen. Gero, iraultza industrialarekin batera, Arrazolar haietako askok Madril, Katalunia, Zaragoza, Huesca eta beste hain-

bat lekutara joan behar izan zuten".

Jose Ramonek 25 urte daramatza Arrazola abizenaren jatorria, genealogia eta adar ezberdinen arteko loturak aztertzen. Ikerketa horietako batek Checara eraman zuen 2013an, eta han ezagutu zuen, kasualitatez, abizenaren arrastoen bila zebilen beste Arrazolar bat, Jose Mari, pasaitarra. Eta, hala, esku artean zuten informazioa baliatuz, Arrazolarren arteko topaketa an-

tolatzea erabaki zuten, helburu argi batekin: abizena eta geneak partekatzen dituzten munduko herrialde ezberdinetako pertsoneri elkar ezagutzeko aukera ematea, eta abizenaren jatorria eta familia ezberdinen arteko loturak ezagutzera ematea.

Aurreneko topaketa hura Checan egin zuten 2014ko ekainean, eta jatorri ezberdinetako 170 bat lagun bildu ziren.

OÑATIN BIGARRENA

Lehen topaketa haren arrakasta ikusirik, bi urte geroago, 2016an, berriro elkartzea erabaki zuten, Oñatin. Munduan zehar bizi diren Arrazolar askoren sorlekua den Olabarrieta auzoa, arbasoen oinetxeak, eta Atxondoko (Bizkaia) Arrazola auzunea -bertan du jatorria abizenak ezagutzeko aukera izan zuten, besteak beste.

Oso hunkigarria izan omen zen Arrazolarren arbasoak bizi eta lan egindako lurra bera zapaldu eta sentitzea. Topaketa haren harira, 'Sobre los Arrazola. Apuntes de genealogía y heráldica' liburua aurkeztu zuen Jose Ramon Arrazolak, abizenaren inguruan ordura arte egindako ikerketen emaitzak jasoz. Gerora beste lau liburu ere argitaratu dituzte.

CARTAGENA DE INDIAS

Hirugarren topaketa Cartagena de Indias hirian (Kolonbia) izan zen, 2018an. Izan ere, Arrazola abizena oso ugaria baita Hego Amerikan. Gaur egun, mundu osoan, Arrazola deitura daukaten 15.000tik gora pertsona daude eta horietatik %94 Hego Amerikan bizi dira: Mexikon 4.083, Bolibian 2.725, Kolonbian 2.463, Hondurasen 1.925, Guatemalan 1.046... Estatu Batuetan 543 dira,

eta Espainia osoan 700 baino ez.

Jose Ramonek azaldu digu nola iritsi ziren Arrazolatarrak Kolonbiara. "Josef de Arrazola y Ugarte izeneko oñatiarra, Olabarrietako Resusta etxekoa sortzez, 1782 aldera Cadizera joan zen eta, ezkondu ondoren, Cartagena de Indias hirian finkatu zen 1791n. Itsas gaindiko merkataritzan estatus garrantzitsua lortu zuen".

BELGIKAKO ADARRA

Belgikan ere badago Arrazolatarraren adar inportante bat eta, hala, Bruselan egin zen laugarren topaketa, 2022an. "Juan de Arrazola Olazaran, Olabarrietako Arrazola-Azpikua etxeko semea, Gasteizera ezkondu zen 1542 inguruan, eta bi belaunaldi geroago, haren ondorengoe-tako bat, Juan Arrazola de Oñate -Araban ohikoa zen abizen konposatua hartzea- Bruselara joan zen 1599an, Felipe IIaren alaba Isabel Clara Eugeniaren idazkari gisa, eta bertan ezkondu zen 1611n, diplomatiko britainiar baten alabarekin, 'Arrazola de Oñate' belgikar leinu berriari hasiera emanez", azaldu digu Jose Ramonek. Egun 60 bat dira abizen hori duten pertsonak Flandrian.

Bereziak eta oparoak izan dira Arrazolatarraren arteko topaketak -500dik gora lagun elkartu dira-, baina adinak ez du barkatzen eta, oraingo, topaketa ziklo honi amaiera ematea erabaki dute antolatzaileek, Oñatin eta Checan (abuztuan) egingo dituzten topaldiekin.

Ekainaren 15ean Oñatiko Protokoloen Artxiboan elkartuko dira, abizenarekin lotutako dokumentuak ikusi eta hamar urte hauetako ibilbidea gogoratzeko. Gero, Soraluze ostatuan elkartuko dira festa giroan.

Arrazolatarreri buruzko ikerketak eta argitalpenak

Munduan barreiatutako Arrazolatarraren arteko harremanak sendotzeaz gain, abizenaren adar ezberdinen genealogiak osatzea izan da 2014az geroztik egin dituzten topaketen helburua eta, hala, hamar urte hauetan bost liburu argitaratu dituzte: **Sobre los Arrazola. Apuntes de genealogía y heráldica** (Jose Ramon Arrazola), **Josef de Arrazola y Ugarte. Apuntes biográficos y apéndice documental** (Jose Ramon Arrazola), **La familia 'Arrazola de Oñate' en Belgica** (Maxim Arrazola de Oñate), **Linaje 'Arrazola de Oñate'** (Jose Ramon Arrazola, gazteleraz eta flamenkeraz), eta **Lorenzo Arrazola o El Estado Liberalcatólico** (Antonio Martínez Mansilla). Gutxi izango dira beraien historia Arrazolatarrak bezain ondo ezagutzen duten familiak.



Arrazolatarrak, Oñatitik mundura

Atxondoko (Bizkaia) Arrazola auzoan -garai batean Elizatea- du jatorria abizenak. Bertatik Durangora eta beste herri batzuetara bizibide bila irtendako pertsonak hartu zuten abizen bezala Arrazola, sorlekuari kasu eginez, garai haietan ohitura zen moduan.

Oñatin 1488an izan zen sute larriaren harira egin zen zentsuaren arabera, badakigu urte hartan Arrazolatarraren 14 etxe zeudela Oñatin, horietako 4 Olabarrietan. Beraz, pentsa liteke 1350 urte ingururako bazirela Arrazolatarrak Oñatin, eta Olabarrietan eraiki zutela oinetxea, gerora hirutan banatu zena: Arrazola Garaikua, Arrazola Azpikua eta Resusta (gaur egungo Errosta).



Gaur egun 15.000tik gora pertsona daude munduan Arrazola abizena dutenak, gehienak (%94 inguru) Hego Amerikan. Checan (Guadalajara) eta Belgikan ere Olabarrietan jatorria duten Arrazolatarrak adar inportanteak duade

Hain zuzen ere, Resusta etxekoa zen XVI. mende hasieran Checara joan eta arrasto luzea utzi zuen Sancho de Arrazola. Belgikan ere bada beste adar sendo bat, Arrazola-Azpikuan jatorria duena, eta Hego Amerikan (Mexiko, Bolibia eta Kolonbian, batez ere) Arrazolatarrak asko daude, Resusta etxean jatorria dutenak.

Arrazolatarraren artean pertsona ospetsu ugari dago historian zehar. Guztien artean Lorenzo Arrazola y Garcia (Checa, 1795-Madril, 1873) nabarmendu genezake. Zuzenbide katedraduna, diputatua, senataria, Auzitegi Goreneko presidentea eta Espainiako gobernuko buru ere izan zen hilabete eta erdiz.



Xabier Igartua eta Izaro Elorza 'Energiaren Zikloa Aktibatu' jardunaldien aurkezpenean

"Herrian sortzen den energia berriztagarria kontsumitzen dugunaren %13a da"

Larrialdi klimatikoa eta trantsizio energetikoa izango da datozen urteetan Udalaren eta herritarren agendak markatuko dituen gaietako bat, duda barik. Denoi dagokigu urratsak ematea eredu iraunkorrako baterantz. Bada, ildo horretan, **'Energiaren Zikloa Aktibatu'** jardunaldiak antolatu ditu Udalak, gaur egungo egoera zein den aztertu eta herri bezala dauzkagun erroka eta aukera ezberdinen inguruan gogoeta egiteko asmoz.

'Energiaren Zikloa Aktibatu' izeneko jardunaldiak antolatu ditu Udalak. Zein helbururekin?

Energiaren inguruan eta, batez ere, argindarrarenean, Oñatik urteetako esperientzia metatua dauka. Klima larrialdia dela eta trantsizio energetikoan sartuta gauden honetan, herrian ere pausak ematen joatea dagokigu, eta jardunaldi hauek hurrengo urteetan emango diren urratsen hastapen bat dira. Hasteko Oñatiko energiaren diagnostikoa zein den azaldu da, ondoren argindar

merkatuaren funtzionamenduen gakoak eman dira, arautatako sektorea baita, eta hirugarren saioan, sor daitezkeen aukeren inguruan jardun dugu. Herriko energia ekosistema osatzen dugun guztiok eragiteko aukera izan baitezakegu.

Jardunaldiei hasiera eman zien hitzaldian Debagoieneko eta, zehazki, Oñatiko energia testuinguruaren diagnostikoa aurkeztu zenuen. Zein da Oñatiko argazkia egun? Zenbat energia kontsumitzen dugu?

Nola banatzen da kontsumoa sektoreka? Zein da kontsumitzen dugun energia horren jatorria?

Oñatiko urteko argindar kontsumoa 168GWh bueltan dago. Ideia bat izateko, Oñatiko Ur Jauzietatik sortzen dena baino 13 aldiz gehiago da hori. Baina energia ez da soilik argindarra. Herrian kontsumitzen den gas natural kontsumoak 300GWh gainditzen du urtero.

Ibilgailuen kontsumoa ere nabarmena da; garraioan dugun gastu energetikoa batz besteko energia behar guztiaren herena izan daiteke. Oñatin industriak pisu handia duenez (%60-65 inguru) garraioarena portzentaiaren jaitxi egiten da, baina guztira 620GWh-ko energia kontsumoa izan dezakegu.

Energia berriztagarriaren sorkuntzan eskualdeko beste herrien gainetik dago Oñati, Olate eta Elgeari esker, batez ere. Baina zenbat suposatzen du horrek Oñatiko energia kontsumoarekiko?

Inguruko herri gehienekin alderatuta, Oñatik sorkuntza gaitasun hobea duela esan genezake. Herrian sortzen den energia berriztagarria 80GWh inguru izango da urteko, baina hala ere herriko kontsumo osoaren %13a baino ez da. Herriko argindar kontsumoaren %45 inguru.

Garbi dago erregai fosilekiko dugun menpekotasuna oso handia dela eta, beraz, energia berriztagarrietarako trantsizioa egitera behartuta gaudela. Ildo horretan, badirudi eguzki plaka edo instalazio fotoboltaikoen aldeko apustua egin nahi duela Udalak. Hala al da?

Lehen helburua, kontsumoa murriztea litzateke, kontsu-

mitzen ez dena delako en-
giarik garbi eta merkeena.

Hala ere jakitun gara, tran-
sizio energetikoa ezin dai-
tekeela egun batetik beste-
ra egin, baina pausuk emate-
ten joan behar dugu. Herri-
ko argindar kontsumo do-
mestikoa beste sortzeko gai-
tasuna dugu Oñatiko Ur Jau-
zietan, eta hori ez da gutxi.
Hala ere menpekotasuna
gutxitzen joateko, eguzki
plaka instalazioetan sakon-
tzea da hasierako irtenbi-
dea. Horrek ere bere mugak
ditu, herriko teilatu guztie-
tan plakak ipiniko bagenitu
(93GWh/urteko), gaur egun-
go behar guztiaren %15a
suposatuko luke.

**Oñatik baso masa handia
daukala kontuan hartuz,
biomasaren bidea jorra-
tzeko aukerarik ikusten al
duzue?**

Tecnaliak egindako txosten
batean biomasaren aukerak
ere aztertu dira, eta horren
arabera, herriko basoetatik
lortu dezakegunak 40GWh/
urteko eman lezake, gaur
egungo beharren %6a.

**Azpiegitura hidrauliko edo
eolikoetan inbertsio berri-
rik egiteko asmorik ba al
du Udalak?**

Udalaren asmoa eguzki pla-
ken instalazioekin hastea
izango litzateke, bere kabuz,
udal instalazioetan, Oñatiko
Ur Jauziak-en azpiegiturak
handituz eta herritarrekin ba-
tera ere posible denean.

**Iraunkortasunaren bidean,
herritarrak aktibatzea eta
lankidetzan oinarritutako
sarea osatzen hastea da
jardunaldi hauen helbu-
ruetako bat. Horretarako,
Energia Komunitateak sor-
tzea proposatzen duzue,
besteak beste. Zer dira
energia komunitateak eta
ze onura dakarte? Ba al**



Olateko zentrala eta Oñargiren Bustinzuloko azpi-estazioa
ezagutzeko aukera egon da jardunaldi hauetara

**"Argindar kontsumo
domestikoa
asetzeko adina
gaitasuna dugu
Oñatiko Ur
Jauzietan, eta ez
da gutxi, baina
menpekotasuna
gutxitzen joateko
eguzki plaken
instalazioan
sakondu nahi dugu"**

**duzue proiektu zehatzen
bat esku artean.**

Inguruko herrietan ari dira
Energia Komunitateak sor-
tzen. Europatik laguntzak
daude energia komunitateak
sustatzeko, gaur egungo Oli-
gopolioak ezer onik ez due-
lako ekartzen energiaren sek-
torean. Herritarrak ahaldu-
ntzeko eta proiektu ezberdi-
nak martxan ipintzeko tres-
na interesgarriak dira.

Azkenengo Partaidetzaz-
ko Aurrekontuetan herrita-
rren boto gehien jaso zuen
proposamenetako bat izan
zen; Energia Komunitateak
martxan ipintzeko bidelagun

**"Energia
komunitateen
sorreran bidelagun
izango da Udala,
herritarrak
parte hartzera
animatuz eta
aukera ezberdinak
esploratuz.
Ahalduntzeko
tresna
interesgarriak dira"**

izatea eskatzen zitzaion Uda-
lari. Horretan jardungo du-
gu hurrengo hilabeteetan.
Herritarrak parte hartzera
animatuz, eta dinamizazio
saio batzuen bitartez, auke-
ra ezberdinak esploratuz.

**Energia berriztagarriak
sortzeaz gain, kontsumoa
murriztera ere jo beharko
genuke. Ari al gara urra-
tsak ematen norabide ho-
rretan?**

Ezinbestekoa da. Mugikor-
tasunean, eraikinen efizien-
tzia energetikoan, kontsumo
ohituren aldaketan, hainbat
pauku egin beharrean gau-

ERAKUSKETA 'Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak'

'Energiaren Zikloa
Aktibatu' jardunaldiei
amaiera emateko
erakusketa interesgarria
izango dugu ikusgai
ekainaren 24tik 28ra, kultur
etxean (10:00-13:00 eta
16:30-20:30. Trantsizio
energetikoaren bidean
Debagoiena eskualde
mailan dugun egoera eta
aukerak azalduko dira
bertan.

de. Diagnostikoak laguntzen
digu non gauden ikusteko eta
aurrera begira egindako kon-
sumo jaitsierak neurtzeko.

**Elektrifikazioaren bidetik,
badirudi, epe motzean as-
ko ugartuko direla kotxe
elektrikoak gure artean.
Ba al duzue karga-lekuak
jartzeko plangintzarik?**

Karga-lekuak ipintzeko hiru
proiektu ari gara lantzen.
Oraindik ez da gehiegi za-
baldu gurean kotxe elektri-
koaren gaia, baina egia da
azpiegiturak prestatzen joan
beharra daukagula

**Jardunaldien aurkezpe-
nean esan zenuten bide
luzeago baten lehen urra-
tsa baino ez dela hau. Zein
mezu helarazi nahiko ze-
nuke?**

Hurrengo hilabete eta urtee-
tan herritar eta gainontzeko
eragileekin batera trantsizio
energetikoa Oñatin ere aha-
lik eta ondoen garatzeko pau-
suk ematen joatea da as-
moa.



Iñigo Ruiz eta Saioa Arkonada zinegotziek eman diote irekiera ofiziala pumptrack guneari

Pumptrack gunea zabalik dago jada

Ofizialki zabalik dago, jada, Udalak Eltzia eraikinaren atzealdean egokitu duen *Pumptrack* gunea, skate, patin eta bizikleta zaleen gozamenerako. Goiko argazkian ikus daitezkeen moduan, bihurtuz eta goragune nahiz sargunez jositako zirkuitua da *pumptrack*a. Eltzian egokitu den azpiegitura berriak 150 metroko luzera dauka, eta zailtasun maila ezberdineko azpi-guneeak ditu bere baitan, askotariko erabilerarako 24 modulekin. Aldi berean 37 lagunek erabiltzeko aukera ematen du. Oren Bike enpresak diseinatu du *pumptrack* gunea, baina horrelako espazioen erabiltzaile diren herritarren iritzia ere hartu ditu kontuan Udalak, eta emaitzarekin pozik dardela adierazi du Saioa Arkonada kirol batzordeburuak.



Atsedena gunea ere egokitu dute

URBANIZAZIO LANAK

Pumptrack gunea eraikitzeaz gain, ingurua txukundu eta irisgarri egiteko hainbat lan ere egin ditu Udalak. "Sarreratik goiko futbol zelairainoko bidea asfaltatu eta argiteria jarri du gu gune osoan. Bide batez, ilun samar zegoen Eltzia alde horretako sarrera argiztatzeke baliatu dugu", adierazi du Iñigo Ruizek, Hirigintza batzordeko buruak.

Denera, 200.000 euroko inbertsioa egin du Udalak; ia 89.000 euro *pumptrack* zirkuitua egokitzen, eta gainerakoa urbanizazio lanetan.

Selma Huxley beka eskatzeko epea zabalik dago



IV. Selma Huxley Barkham ikerketa beka eskatzeko proposamenak aurkezteko epea zabalik dago, **ekainaren 28ra** arte. Emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak aitortu, eza-gutarazi eta balioan jartzea da helburua. Bekak 18.000 euroko dotazioa du eta 18 hilabeteko epea dago lana burutzeko. www.oñati.eus webgunean kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

Berdintasun teknikari lan poltsa osatzeko deialdia egin du Udalak

Emakumeen Etxeak ekar ditzaizkeen pertsonal beharrak asetzearaz gain, udaleko Berdintasun departamentuak datozen urteetan izan ditzaizkeen premiei erantzun ahal izateko lan poltsa osatzeko deialdia egin du Udalak. Unibertsitate mailako gradua edo diplomatura, berdintasun arloko formazioa (gutxienez 150 ordukoa, erakunde ofizial batek ziurtatutakoa) eta euskarazko 4. hizkuntza-eskakizun maila eskatzen dira, aurkeztu ahal izateko. Lan esperientzia ere baloratuko da lehiaketa fasean. **Ekainaren 19ra** arteko epea dago izena emateko. Udalaren webgunean kontsulta daitezke oinarriak.

FAGOR
PROFESSIONAL



ONNERA GROUP

Ekainaren 15ean irekiko da bainu denboraldia Usakon eta Ur Uhinak parkean

> Usakon sorosle zerbitzua egongo da egunero, 15:00-21:00

> Ur txorroten parkean komuna jarri du Udalak

Ekainaren 15ean irekiko da ofizialki bainu denboraldia Usakon, eta irailaren 15era arte luzatuko da. Horrek esan nahi du, hiru hilabete horietan sorosle zerbitzua egongo dela bertan, egunero, astelehenetik igandera, arratsaldetan, 15:00etatik 21:00ak arte. Jende gehien batu ohi den orduetan (16:00-20:00) zerbitzua indartu egingo da -bi sorosle egongo dira-, abuztuaren 5etik 18ra izan ezik.



URAREN KALITATEAREN JARRAIPENA

Jaurjaritzako Osasun sailaren agindua betetz, 'Ez bainatzea gomendatzen da' dioen kartela jarriko du Udalak Usakon, bainu eremu horrek ez duelako beti bermatzen 1341/2007 Dekretuak ezartzen duen kutsadura bakteriologikoaren maila.

Horregatik, aurten ere Usakoko uraren kalitatearen jarraipen berezia egingo du Udalak. Astero egingo dira analisiak, baina balizko kutsadura mugak kontrako gomendatzen ez duen bitartean baimenduta egongo da bertan bainatzea. Gogoratu, dena den, bainua hartu ondoren dutxa hartzea gomendatzen dela.

HERRIBUSA USAKORA

Herribusak aurten ere bi joan-etorri egingo ditu egunero (astelehenetik ostiralera) Usakora: Ugarkaldetik 16:00etan (B linea) eta 19:30etan (C linea) ateratzen diren zerbitzuak joango dira Usakoraino. Bestalde, Udalak aparkalekua egokituko du Zañartauko ohiko balardian.

Kaleratutako langilearen auzian gardentasun eza eta begirune falta egotzi dio EAJK udal gobernuari

Langile bat kaleratzeagatik EAeko Auzitegi Nagusiak Oñatiko Udalaren kontra emandako epaiaren harira, EAJren udal taldeak babesa eta elkertasuna adierazi dio langileari, "aurretik zeukan lanpostu finkoa utzi eta Udalean lanean hasi eta hilabetera kaleratze desegokiari aurre egin behar izan diolako". Era berean, udal gobernua langilearekiko izandako begirune falta ere salatu dute jeltzaleek, "epaitegira jo aurretik erreklamazioa aurkeztu zuelako Udalean, eta gobernu taldeak ez ziolako erantzun ere egin".

GARDENTASUN EZA

Gobernu taldearen gardentasun falta ere salatu du EAJK, komunikabideen bitartez izan duelako prozesu judizialaren inguruko informazioa. "Gehiengo absolutua duen EH Bilduren gobernuaren ohiko jokaera da" gaineratu zuten. Eta garbi utzi nahi izan zuten, Auzitegi Nagusiaren epaiaren balorazioa udal gobernuarena dela eta ez korporazio osoarena.

Azkenik, EAJK kezkarritzat eta desegokitzat jo du kaleratutako langilea kontratatzeke 2018an egin zen hautaketa prozesuaren kudeaketa. "Hain zuzen ere, kudeaketa desegoki horrek eragin du kontratazio akats tamalgarria eta, ondorioz, langilea kaleratzea eta itzelezko kalte-ordaina ordaindu behar izatea". Gogoratu, Udala 30.000 euroko kalte-ordaina eta epaiaren kostua ordaintzera zigortu dutela.



UR TXORROTAK EKAINAREN 15ETIK AURRERA

Ur Uhinak parkean ere ekainaren 15ean hasiko da bainu denboraldia, eta irailaren 15era arte egunero egongo dira martxan ur txorrotak, 11:00etatik 21:00etara. Aurten, gainera, komuna ipini du bertan Udalak. Gogoratu, 2022ko Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuan 3. proposamen bozkatuena izan zela ur-jolasen parkean komuna jartzea. Komun hau urte osoan egongo da erabilgarri.

Ehun urte, mila zorion, Florencio



Florencio eta seme-alabak udal ordezkarien oroigarria jasotzen.

Florencio Perez Resanok ehun urte bete zituen maiatzaren 11n, eta halakoetan egin ohi den moduan, Izaro Elorza alkateak eta udaleko Ongizate batzordeko buru Lierni Altubek emandako oroigarria eta lore sorta jaso zituen, herri osoaren izenean. Torrellasekoa (Zaragoza) sortzez, 1970ean iritsi zen Florencio Oñatira, Adoración Pérez emaztea zena, eta hiru seme-alabarekin, eta orduz geroztik hemen egin du bizimodua. Sorterrian nekazaritzan jardun zuen eta, behin Oñatira etorrita, *Solaun y Rubio* plantxa fabrian eta ULMAn (Eraikuntza) egin zuen lan, erretiroa hartu arte. Alaba gazteenarekin bizi da egun, eta osasunez ondo dago. Bere kabuz moldatzen da. Telebista ikusi eta egunkaria irakurtzeaz gain, oso gustuko du kartetan jokatzea, eta baita kantuan egitea ere, jotak batez ere, noski. Florencio da, egun, ehun urte edo gehiago dituen herritar bakarra Oñatin. Zorionak!

'ELTZIA EGUNA' ospatuko da ekainaren 15ean

Haur guztiak daude gonbidatuta goizeko ipuin kontaketa saiora, eta herritar guztiak bazkalosteko kontzertuetara



Eltzian egoitza duten taldetako batzuetako kideak Eltzia Egunarako deialdia egiten

Egun osoko jaia prestatu dute Eltzia Eguna ospatzeko, ekainaren 15ean. Goizeko 12:30etan emango diote hasiera etxeko txikientzako ipuin kontaketa saio batekin, Topagunean. Herriko haur guztiak daude gonbidatuta.

Gero bazkaria egongo da. Eguraldia ona bada, kanpoan, parkinean, eta, bestela, Topagunean. Bazkaria Eltzian egoitza duten herriko talde eta eragileetako ordezkari zuzenduta dago,

batez ere, izan ere, Eltzia Egunaren helburua horixe baita: Eltzekideen arteko elkar ezagutza sustatzea eta elkarren arteko harremanak sedotzea; Eltzia proiektuaren komunitate izaera sendotzea, alegia. Bertako tabernan daude salgai (22€) bazkarirako tiketak.

Bazkalondoa girotzeko, Lagun Leku-k kideek bingoa antolatuko dute, eta Txinparta bertso eskolako kideak ere igoko dira oholtzara.

Arratsalde partean (18:00) musikak hartuko du protagonismoa. Aurrena **Maddi Arlanzon** ariko da, eta, gero, erromeria giroa jarriko du **Hamarratz** taldeak. **DJ** batek jarriko dio amaiera egunari. Arratsaldeko kontzertuetara herritar guztiak daude gonbidatuta, izan ere, Eltzia eta herriaren arteko zubia eraikitzea, eta Eltzia barruan da goen bitzta eta aniztasuna erakustea baita Eltzia Egunaren beste helburua.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: linkorta@tefeline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

GAKO
Garbiketasunaren usaina

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

Arranoaitzen egun pasa egiteko aukera egongo da ekainaren 15ean

Berritasun moduan, haurrentzako puzgarriak egongo dira

Arranoaitz inguruan egun pasa polita egiteko egitaraua antolatu du herritar talde batek ekainaren 15erako. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

2021ean antolatu zuten aurrenekoz antzeko plan bat, SAREk antolatutako 'Euskal Herriko tontorren igoera' ekimenaren baitan, eta jendearen erantzun ona ikusirik, iaz, proba modura, berriz ere egun osoko egitaraua antolatu zuten, eta aurten ere errepikatzea pentsatu dute. "Herritarrak Aurrekomendira gehiago gerturatzea da helburua, inguru horietarako joera indartzea, eta, jai giroan, harreman eta ideia berriak sortzea", adierazi dute antolatzailerak.



EGITARAUA

Eguerdiko 12:00etan hasiko dira ekitaldiak, **Lizartxo** eta **Sukena** taldeekin. **Astelehen goizak** (Oiartzun) eta **Fito skins** (Elorrio) taldeak ere ariko dira, eta mikro irekiaren ondoren **Dis-topia** elektrotzarangak borobilduko du festa. **Taberna** eta **sukalde** zerbitzua

(paella, albondigak, txorizoa, kroketak...) ere egongo da, eta, aurten, berritasun modura, **haurren txokoa** ere (puzgarria eta jolasteko gunea) egongo da. Sukalde kontuak hobeto kalkulatu eta antolatze aldera edalontzi eramangarriak (2€) ipini dituzte eskuragarri Arrano tabernan.

Gurutze Gorriaren 'Urrezko Zozketa' abian da

Herriko hainbat denda, taberna eta jatetxetan eskura daitezke, jada, Gurutze Gorriaren Urrezko Zozketako txartelak. Urtero bezala, sari ugari eta potoloak eskuratzeko aukera egongo da: 3 milioi euroko lehenengo saria, milioi bateko bigarrena, milioi erdiko hirugarrena, eta 2.000€ eta 50€ arteko milaka sari ere bai. Uztailaren 23an egingo da zozketa -www.cruzroja.es webgunean kontsultatu ahal izango dira saritutako zenbakiak-. Gogoratu, Urrearen Zozketa izaten dela Gurutze Gorriak eskaintzen dituen zerbitzu eta gizarte-proiektuei eusteko diru-iturri nagusietako bat. Iiaz 884 pertsona artatu zituen gure eskualdean, egoera sozial eta ekonomiko zaila bizi zuten pertsonak, horietatik %30 adineko pertsonak, desgaitasunen bat edo osasun arazoren bat zutenak.

Olakua eta San Lorentzoko bizilagunek Natur Eskolan eman beharko dute botoa aurrerantzean

Orain arte Olakuako dorrean eta Txiki Txoko haurreskolan eman izan dute botoa San Lorentzo eta Olakuako bizilagunek, baina bi eraikin horietan egon izan diren lau hautes-mahaiak Natur Eskolan bateratzea erabaki du Udalak, samurtasun eta erosotasun handiagoa eskaintzen duelako bozka-lekuak antolatzeke. Beraz, igandeko (ekainak 9) Europako parlamenturako hauteskundeetan Olakua eta San Lorentzoko bizilagunek Natur Eskolara joan beharko dute botoa ematera.

Oñatiko III. 'Hika Eguna' ekainaren 22an izango da

'Beldur barik hikaratu!' lelopean, Oñatiko III. Hika Eguna ospatuko da hilaren 22an, larunbata, Ingo Xonau! taldeak antolatuta, Udalaren babesarekin. Bazkaldu aurretik hika-potea egingo dute, ondoren bazkaria, hika praktikatzeko jolasekin, eta arratsaldean tabernaz taberna ibiliko dira *Eingo* taldearekin kantuan eta dantzan, giro ezinhobean. Beraz, animatu eta parte hartu!

Bigarren eskuko azoka egingo da ekainaren 8an

Bigarren eskuko arropa, jostailu, altzari eta bestelako gaien azoka egingo da ekainaren 8an, Foruen plazan, goizeko 10:00etatik 14:00etara. Postua jarri nahi duenak bigarre.azoka2023@gmail.com helbidera idatzi behar du.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

'FAN HEMENDIK!'

aldarrikapena entzungo da beriz ere Oñatiko kaleetan

Geldialdi baten ostean FAN HEMENDIK! eguna egingo da ekainaren 22an

Bost bat urteko geldialdiaren ostean 'FAN HEMENDIK!' eguna ospatuko da berriz ere aurten, ekainaren 22an, "ahaztu ez dezaten herrian ez ditugula nahi, kuartelik gabeko herria izan nahi dugula", adierazi dute antolatzaileek.

Ekainaren 22ko ekitaldiez gain (poteo girotua, bazkaria, manifestazioa...) bestelako ekitaldiak ere antolatu dituzte: mural margoketa, hitzaldia, kontzertuak..., kartel-egitarauan ikus daitekeen moduan. Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei ekainean zehar izango diren ekintza desberdinetan eta herriko kaleak beteko dituen manifestazioan parte hartzera.



FAN HEMENDIK!

Ekainak 6, osteguna
Mural margoketa + pintxopotea

Ekainak 11, astearte 19:00
Hitzaldia kultur etxean:
Tortura Euskal Herrian

Ekainak 20, osteguna
Gaztetxian pintxopotea eta kontzertu sorpresa

Ekainak 22, zapatua
FAN HEMENDIK EGUNA

- Poteo girotua 12:00
- Bazkaria 13:00

MANIFESTAZIOA
18:00 plazatik hasita

Zergatik jarraitzen dute oraindik hemen?

Espainia eta Frantziako indar armatu eta polizialen presentzia Euskal Herriak pairatzen duen zapalkuntzaren adierazgarri nagusienetako bat da. Urte luzez gure lurretan nagusitasunez eta zigorgabetasunez modu bortitzean jardun dute eta oraindik ere beraien papera estatuen batasuna eta asimilazio prozesua bermatzea da. Horregatik dira indar okupatzaileak, berain presentzia Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki ez dezan baitaude hemen.

Jakinekkoa da dagoeneko errepresioa eta zapalkuntza izan direla beraien jardun nagusiak azken hamarkadetan: hainbat aldiz salatu izan diren hilketak, torturak, mehatxuak, jarraipenak, kolaborazio eskaerak, errepidetako kontrol bortitzak eta giza eskubideen urraketa larriak. Esan beharrik ez dago **estatuen babes eta zilegitasuna bermatuak izan dituztela uneoro.**

Konfrontazio armatuaren garaian paper protagonista jokatu zuten, eta gaur egun oraindik, ikusgarritasuna jaitsi bada ere, bertan jarraitzen dute. **Ziklo**

haren bukaerak, baina, ez du beraien presentzian aldaketa nabarmenik ekarri, ez eta joateko intentziorik agertu ere. Zergatik jarraitzen dute, bada, oraindik hemen? Badakite, ondo jakin ere, beraien irteera gatazkaren balizko konponbiderako urrats handia dela.

Beraien presentziak ez dauka errepresioa eta estatuen batasuna indarrez bermatzea ez den beste justifikaziorik. Euskal Herriak jarraitzen du Europa osoko lurralde militarizatuena eta biztanleko indar armatu gehien dituen izaten, nahiz eta konfrontazio armatua iraganeko kontua den.

Oñatiren kasuan ere, batzuetan ahaztu zaigula dirudien arren, Guardia Zibilaren kuartel aktibo bat dugu herriaren erdian. Herriko historia ilunaren parte izan da Guardia Zibila eta hainbat eta hainbat errepresio kasuren eragile nabarmena. Besteak beste, ekainaren 25ean 34 urte beteko dira Susana Arregi torturatu eta hil zutela, eta ezin ahaztu Oñatiarrek jasandako 66 tortura kasu baino gehiago, errepide kontrol bortitzak,

atxiloketak eta eragindako tentsio eta sufrimendua.

Indar okupatzaileen presentziaren aurrean Fan Hemendik mugimendua martxan izan da Oñatin hainbat urteetan zehar. Manifestazioak, kanpaina ezberdinak, sinadura bilketa, bazkari herrikoiak, kontzertuak eta gehiago antolatu izan dira, ehunka herritarren babesarekin eta helburu garbi batekin: **Indar okupatzaileek Euskal Herriatik irten behar dute! Herri honek bakean bizi nahi du, indar okupatzaileen presentziarik gabe.**

Geldialdi baten ostean, beste urte batez, aldarrikapen hauek herriko kalera aterako ditugu, ahaztu ez dezaten, ez ditugula herrian nahi. Kuartelik gabeko herria izan nahi dugu. Horretarako, herritarren guztien parte hartzea ezinbestekoa izango da ekainean zehar burutuko diren ekintza desberdinetan eta kaleak beteko dituen manifestazioan.

*Aitor Atxa eta Julen Kortabarria,
Fan Hemendik taldearen izenean*

Lehengo bizimodua, Olabartarrek kontatua

'Olabartarrak' liburua idatzi du Ander Lizarralde. Lehengo bizi-ohiturak eta berbakera jaso ditu, auzotarren ahotik

"1960ko hamarkadan, industrializazioa eta modernitatea iristearrekin batera, gure arbasoen bizitzeko moldea galdu zen betirako, abiada bizian, ia memoriarik utzi gabe, bizimodu zahar eta gogor hartaz inork gehiago ezer jakin nahi izango ez balu bezala. Ez da apenas transmisiorik egin auzoan". Kezka horretatik abiatuta, Olabartarrak liburua plazaratu du Ander Lizarralde.

Liburu desberdina da, berezia, polita eta oso irakurterraza. Ez da artxi-boetatik ateratako informazio eta datuekin osatutako liburua, ez. Liburu honetan auzotarrak dira benetako protagonistak: Joxe Mari Arabaolaza, Juli Arregi, Bernabe Belategi, Carmen Markuleta eta beste asko, eta beraiek be-



rritu dituzte garai bateko bizipen eta oroitzapenak: ofizioak, janzkerak, eskola, festak, ezkontzak, hiletak, gerra...

Irakurterraza bakarrik ez, ikusgarria ere bada liburua, etxez etxe jasotako argazki asko eta ederrak bildu dituelako Lizarralde. Gainera, auzotarren testigantzak beraiek esandako modu-moduan jaso ditu eta, horri esker, euskara bera eta berbakerak nola aldatu diren ikusteko ere balio du.



Liburuan parte hartu duten auzotarretako batzuk eta egilea, Ander Lizarralde.. *Olabartarrak* liburua Altuna estankuan eskura daiteke 15€tan

IZPI

ongizatea eta edertasuna

Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak
Manikurak eta pedikurak
Masaje lasaigarriak
Egun berezietarako makillajea
Depilazioa

Tratamientos faciales y corporales
Manicuras y pedicuras
Masajes relajantes
Maquillaje para eventos
Depilación

Maiatzaren 1a plaza 2, behea
633 114 613
@izpi.ongizatea





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkari erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Azaleko argazkia:
Altxa Burua-oñati.

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Maketazioa:

Abao Komunikazio Agentzia

Kolaboratzailea:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Jesus Irizar Etxezarreta

Jerardo Elortza

Ustekabe haundixa izan zan neretzat **Txutxin** derrepentian hil zala esan nostainian. Izan be, sarrittan egoten giñan alkarrekin, Kale zaharrian gora eta behera trikitx egitten gebenian. Egun batzuk lehenago be bai. Jexus eta bere familia oso hurrekua neukan ume-umetatik eta hartu-emun askokua. Auntzolatarran tradiziñuari jarraituaz, dantzari eta dantza-maixu saiaturia izan zan mutikotatik azkenera arte. Makifña bat ahalegin egin zittuan Korpusetako dantzen espirituari eusten ez ezik, **Oñatz** dantza-talde bikaina sortzen eta aurrera ataraten be. Eta ezin ahaztu Apostoladuren **Minerva** kofradixan burututako hamaika lan. Behin baiño gehixagotan jardun geben alkarlanian Oñatiko kultura eta historiarekin hain lotuta dagozen arlo horreik aztertu eta agertu guran. Milla esker, Jexus, heure bizitza osuan gure herrixari egindako ekarpen ederrarengatik.

Mila-mila esker!!!!

Jabi Agirre, Oñati Abesbatzaren izenean

Lerro hauen bitartez, Oñati Abesbatzako kide guztion izenean gure eskerrik beroena agertu nahi dizuegu pasa den zapatuan, hilak 4, Bidaurretako elizan, abesbatzako kide zen Xabier Ugarteren omenez egindako kontzertuan gurekin izan zineten guztioi. Eskerrik asko Esteban Urzelai eta Madrillo Euskal Etxeko Orfeoiko kideoi eskaini zeniguten kontzertu bikainagatik; mila esker Bidaurretako monasterioko lekaime guztioi eman zenizkiguten erraztasunengatik, eta gure eskerrik beroena kontzertuan gurekin izan zintuztegun entzule guzti-guztioi. Oso hunkigarria eta motibagarria izan zen guretzat ere emanaldia hasi orduko eliza bete-betea zegoela jakitea. **ESKERRIK ASKO BIHOTZ-BIHOTZEZ!!!!**



Soka-dantza hunkigarria 'Txutxin'en omenez

Asko izan ziren, argazkiak erakusten duen moduan, Jesus Irizar 'Txutxin' zenaren omenez domeka arratsaldean egin zen soka-dantzara batu ziren herritarrak. Dantza saioa amaituta, txalo zaparrada, besarkada eta negar malko artean omendu zuten hainbeste urtez dantza-maisu izandakoa.

Errekaldeko jaietan saritutako zenbakiak

Hauek dira aurtengo Errekaldeko jaietako zozketan sarituak atera diren zenbakiak:

-1. saria: 3106
(ordezkoa 1406)

-2. saria: 3693
(ordezkoa 2242)

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> LUDOTEKAKO IKASTURTEARI AGURRA <<

Ikasturtea amaitzeaz dago Txaloka Ludotekan. Helburu finko batekin hasi genuen ibilbidea, eta horretan lanean aritu gara buru-belarri urte guztian zehar.

Argi dugu Ludotekak haur barik zentzua galtzen duela, umeentzako sortua baita; eta, horregatik, eman ditugun pausu guztietan areto hori haurrez betetzeko eta herrira ezagutarazteko xedea izan dugu gidari.

Gogoan eta balioan jarri behar da, beste behin ere, Ludotekak herriari eskaintzen dion aberastasuna.

Oñatiko Txaloka Ludoteka euskaraz jolasteko eta lagunartean ondo pasatzeko gune bat da, 3-4 urtetik 8-9 urtera bitarteko umeentzat bideratuta.

Astelehenetik ostiralera haurren autonomia eta parte hartzea bultzatzen da bertan, jolas librearen bitartez.

Aurretik aipaturiko hori guztia baloratzeko eta bizitzeko indarrez aritu gara lanean, eta herriak erantzun du. Zerbitzua berpiztu eta haur asko izan dira bertatik pasatu direnak. Batzuk ikasturte guztian zehar, eta beste batzuk antolatu ditugun ekintza ezberdinetako partaide izanez.

Ekintzaz betetako urtea izan da. Ate irekiekin hasi ginen, ekintza bereziak antolatzen jarraitu, Ludoteka ibiltariak diseinatu; eta, ostiralero-ostiralero, Ludotekaren ateak herrira zabaldu ditugu antolatutako tailerrak eskainiz, esate baterako, zirko tailerra, estanpazio tailerra, ipuin kontalaria, eskulanak, ortuko lanetan aritzeko jarduerak, bitxigintza eta abar luze batez eraman dugu aurrera ikasturteko helburu nagusia: lagun berriekin jolasaz gozatzea.

2024-2025. ikasturtean ere bertan izango gara zu ezagutzeko irrikaz. Guk ekintzak antolatzen jarraituko dugu, lanean baitihardugu oñatiarrak guregana hurbiltzeko; guztiok herrian dugun altxor bat etenik gabe zainduz: gure Txaloka Ludoteka.

Laster, ateak itxiko ditugu, eta udalekuen antolakuntzan murgilduko gara. Baina, zeuk nahi baduzu, kuxkuxeatu gure sare sozialetan (@txalokaLudoteka) eta gerturatu guregana hurrengo ikasturtea ere ate joka dugulako.

Etorriko al zara? Zure zain gelditzen gara.

>> ERASMUS + (Bedizzole, Ibarra, Oñati) <<



Maiatzaren 21ean, Gaztelekuan egindako ekitaldiarekin ikasturte honetan zehar burutu dugun **Eramus+** proiektuari bukaera eman genion. Ekintza honetan Ibarra eta Oñatiko gazteak elkartu ziren, berriro ere; eta proiektuan probetxuz parte hartu izana bermatzen duen *Youth-pass* ziurtagiria banatu zitzaizkien bertako protagonistei. Horretaz gain, adierazi Ibarra eta Oñatiko gazteak agurtzeko ere aukera izan genuela, ahaztu ezina izango den esperientzia horri amaiera emanez.

AGENDA:

Ekainak 8: Pizza lehiaketa topalekuan. **Ekainak 9:** Cluedo, Kuboan daudenentzako.

Ekainak 15: Kubo eguna. **Ekainak 17-21:** Aste Olinpikoa Kuboan.

Ekainak 25-28: Gaztelekuko prozesuko bidaia Somo herrira.

C1 titulua eskuratzeko ikastaroa

HABEren iraileko deialdirako prestatzeko ikastaroa antolatu du euskaltegiak

ZERTARAKO C1 TITULUA

Gaur egunean, Euskal Herrian administrazio lanpostu bat lortzeko, maila bateko edo besteko euskara-gaitasuna egiaztatzea eskatzen da, besteak beste, irakaskuntzan, Osakidetzan eta Ertzaintzan. Administrazioetik kanpoko lanpostu askotan ere, derrigorrezkoa ez izan arren, eskatu edo balioetsi egiten da. Beraz, C1 mailako tituluak balio funtzional handia du gure gizartearen lanpostu bat eskuratzeari begira.

IRAILEKO DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzako HABE erakundeak ikasturtearen zehar euskaltegi batean ikasten duten ikasleentzat bi deialdi prestatzen ditu —deialdi itxiak deitzen zaienak—, bata maiatzean eta bestea irailean. Ikastaro honetan, HABEren iraileko deialdira joateko prestatuko da ikaslea.



Udal euskaltegiko irakasle taldea

C1 mailako tituluak balio funtzional handia du lanpostu bat eskuratzeari begira, bai administrazioan eta baita administrazioetik kanpo ere

IKASTAROA

- Ekainak 24-uztailak 19
- Asteleheneetik ostiralera, 8:30-13:00
- 80 ikastordu
- Prezioa: 124,50€
(Langabezian egon eta subsidiorik jasotzen ez dutenek, doan; jasotzen dutenek, berriz, matrikula hobarritua izango dute).

MATRIKULA EPEA

- Ekainaren 3tik 20ra, udal euskaltegian bertan (Bidebarrieta kalea, 18 / 943782496).

HELBURUA

- HABEren iraileko azterketa itxirako prestatzea da helburua.

UZTAILEAN
C1 mailako ikastaroa goizetan

Ni banoian/k!

Ekainaren 20ra arte
izena emateko epea
euskaltegian

EUSKARA
GUZTIONTZAT

BETA LARRANDEGIA
OÑATI

OÑATI
dabilen herria

Torreauzoko Herri Lasterketak 25. aldia beteko du aurten

Ekainaren 30ean izango da, 10:30etan. Handbike-ean eta gurpildun aulkietan doazenak 10:00etan irtengo dira.



Korrikalari taldea helmugara iristen 2022ko edizioan

Torreauzoko Herri Lasterketak 25. aldia beteko du aurten. *Abixaran* taldeak antolatzen duen 7.a izango da, eta 2016an finkatu zituzten helburuei tinko utsiz jarraitzen dute: lasterketaren izaera herrikoa gorde eta emakumeen partaidetza sustatzea.

Aurtengo lasterketa ekainaren 30ean izango da, Torreauzoko jaietako domekan, ohi bezala. "Eskuzabaltasunez eta babes osoa eskainiz hartzen gaituen auzoko jaiei gure ekarpena egin nahi diogu, domeka goizeko festa giroa borobilduz", adierazi dute antolatzaileek. Ohiko sarien banaketa, oparien zozketa eta txorizo-pintxoek gain sorpresak ere izango omen dira aurten, zilarrezko ezteiak pataide guztiekin ospatzeko.

IZEN-EMATEA ZABALIK

On-line da izena emateko bide bakarra www.herrikrosa.eus atariaren bidez. Ekainaren

28ko 22:00ak arte 10 euro balioko du izen-emateak, eta hortik aurrera, lasterketa eguneko goizeko 9:00ak arte, 18 euro. Dorsalak Torreauzon bertan jaso beharko dira.

Lasterketa (7,5km) goizeko 10:30etan hasiko da. Handbike-an eta gurpildun aulkietan doazen lasterkari eta laguntzaileak 10:00etan irtengo dira. Zailtasunen gainetik kirola guztiontzat onuragarria dela bistartzeko ahaleginean jarraitzen dute antolatzaileek, eta lasterketan parte hartzera animatu nahi dituzte aniztasun funtzionala edo mugikortasun mugatua duten pertsonak, jaso_ne_elorza@yahoo.es helbidera idatziz.

Korrikalariak taldeka parte hartzera animatzen dituzte aurten ere antolatzaileek, emakumeen parte hartzea sustatzeko lagungarria delakoan. Amaieran opari bereziak egongo dira taldeentzat -gutxienez 3 lagun- eta emakumeentzat.



Logo eta kartel berriak, filosofiarekin bat eginez

Lasterketaren 25. edizioarekin batera, logoa eta kartela berriak dituzte antolatzaileek, Torreauzoko hitzorduaren filosofia eta egungo errealitatea hobeto irudikatzen asmoz. Familian korrika egitea, gizon eta emakumeak parez pare, eta kirolaren balio integratzailea aldarrikatu nahi dituzte kartel berriarekin. Torreauzoko lasterketa guztiontzat eroso eta erakargarria gertatzea da antolatzaileen helburua. Lasterkari guztiek jasoko duten kamisetaren diseinua ere bereziki zaindu dute zilarrezko ezteiak gogoan hartuta. Animatu eta parte hartu!

**Oñabike**

oñabike.com

Otadui 25, Oñati - Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



Amestutako debuta, bere aurreneko Zegaman

Handia egin du berriz ere **Malen Osak**, Salomon taldeko korrikalariak, bigarren postuan helmugaratuta Zegama-Aizkorri lasterketako bere debutean, maratoni distantzian egiten zuen aurreneko proban. Atzetik aurrerako lasterketa egin zuen oñatiarrak, entrenatzailearekin adostutako partzialak betez. Hala, Aratzen (16. km) bederatzigarren zihuan, baina Sancti Spiritusera orduko laugarrena zen eta kresterioko zati teknikoa baliatu zuen bigarren postuan jartzeko. Eta halaxe helmugaratu zen 4:35:20ko denborarekin, Sylvia Nordskar norbegiarrarengandik 6 minutura.

Oso pozik zegoen emaitzarekin, baina, bereziki, distantzia eta erritmoak egoki kudeatzeko gai izan zelako, eta pozik, baita ere, bizi izandako emozioekin. "Ikaragarria izan da hainbeste jende ikustea animoak ematen. Pribilegiatua sentitzen naiz hau guzti hau barrutik bizitzeko aukera izan dudalako" adierazi zuen.

Bikaina izan zen, baita ere, **Xabi Lete** oñatiarrak egindako lasterketa. **Soronea Ammma** taldeko korrikalariak 4:16:35ean osatu zuen lasterketa, sailkapen orokorreko 44. postuan, bere marka ia 8 minutuan hobetuz. **Saioa Arkonadak** 6:04:38an amaitu zuen.

Bestalde, ostiralean jokaturako Kilometro Bertikalean **Mikel Urrutia** (0:47:00) izan zen lehen oñatiarra. **Joseba Molinero** (0:48:21) eta **Maite Zabaleta** (0:49:16) aurrenak izan ziren Beteranoen B eta A mailetan, hurrenez hurren.




Mikel Ugarte Lazaroteko Ironmaneko podiumean

Zur eta lur utzi gaitu beste behin **Mikel Ugarte** triatletak, 3. sailkatu baita askoren ustez Europako gogorrena den Lanzaroteko Ironmanean. Guztira 8:36:39an osatu zuen proba oñatiarrak, eta garaipena bera ere ez zuen urruti izan.

Igeriketako partzalean (3.800 metro) azkarrena izan zen bera. Erritmo gogorra jarri zuen hasieratik, faborito zirenei ahalik eta tarte handiena ateratzeko asmoz, eta aurrena atera zen uretatik, Kalb alemaniarrekin batera, 49:30eko denborarekin. Bizikletako proba gogorrean (180 km eta 2.500m+) borroka handia egon zen aurreneko postuetan, eta Ugartek 3. postuan amaitu zuen, 4:50:47ko partzialarekin.

Maratoian erabakiko zen guztia. Mikelek erritmo onean ekin zion, eta 8. kilometrorako lasterketa buruan zen berriz ere, eta halaxe mantendu zen 28. km-raino, baina hurrengo lau kilometroetan krisialditxo bat izan zuen eta aurrena hartu zioten Vandendriessche belgiarrak (2021eko irabazleak) eta Jordi Montraveta espainiarrak. Une batez, 3. postua ere arriskuan ikusi zuen oñatiarrak, baina, zorionez, gorputzaldiari buelta eman eta podiumera igotzea lortu zuen, irabazlearengandik ia 7 minutura. Penatxoa zeukan Mikelek, munduko Ironman txapelketarako bi txartel soilik zeudelako jokoan, baina pozik, era berean, oso pozik, ez delako batere erraza Ironman proba batean aurrean ibiltzea, eta are gutxiago podiumera igotzea.



COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPECIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS

Txindokira, Aloña Mendiren eskutik

Ekainaren 16an Ganbo (1413m) eta Txindoki (1346m) mendiak igotzeko aukera egongo da Aloña Mendiren eskutik. **Hilaren 13a** da ize-na (10€) emateko azken eguna, soilik emailaz (alonamendi.mendi@gmail.com). Irteera goizeko 7etan izango da, postetxe paretik.

Mendi martxa Zubillagan

Zubillagako I. Mendi Martxa (14km/+640m) egingo da **ekainaren 29an** (pilotalekuan, 9:00). Izen-ematea (5€) Amets eta Arrano tabernetan egin daiteke, hilaren 16ra arte. Partaide guztiek jasoko dute opari eder bana, eta amaieran luntxa egongo da.

Plazak libre udako kirol kanpainan

Zubikoa kiroldegitik jakinazari dutenez, oraindik tokia dago udako kirol kanpainara begira programatu diren jarduera gehienetan. Informazioa eta izen-ematea kiroldegian bertan, **ekainaren 20ra** arte.



TXAPELDUNAK

Urte berezia izaten ari da Aloña Mendirentzat, elkartearen 75. urteurrena betetzen den honetan, eta klubeko hainbat taldek festara batu nahi izan dute. Hala, gizonezkoen lehen futbol taldeak Ohorezko Erregional mailara igotzea lortu du, play offean Ostadar mendean hartuta (2-2 eta 1-0), iaz galdutako maila berreskuratuz. Bestalde, lehen mailako Jubenilek kopa irabazi dute finalean 1-0 irabazita Euskaldunari, eta eskubaloiko kadete mailako neskek ere kopa irabazi dute Pulpo mendean hartuta (25-24).



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

'Txakolinaren ospakuntza'

Txakolina ardatz hartuta, musika, dantza eta poesia uztartuko dituen ikuskizun berezia eskainiko du Ganbara Faktoriak

Upaingo mahastietan izango da emanaldia, ekainaren 28an, gaueko 22:00etan



Uda sasoiarekin batera 'Udako Gauak' kontzertu-ikuskizun berezia eskaini ohi du urtero Ganbara Faktoriak, eta aurtegoak ere oso itxura ederra dauka. Txakolinaren kultura ardatz hartuta, musika, dantza eta poesia uztartuko dituen ikuskizun ederra izango da, eta emanaldirako hautatu duten agertoki edo markoa ere paregabea: Upaingo txakolindegiko mahastiak. Gainera, ekitaldiaren amaieran herriko txakolin ekoizleen (Belaskua, Murgialdai eta Upain) ardoa dastatzeko aukera egongo da. Modu horretan Ganbara Faktoriak aitortzatxoa egin nahi die herriko txakolingileei eta beraiei esker ditugun inguru ederrei.

Bitoriano Gandiagaren idatzietatik sortutako ikuskizuna da 'Txakolinaren Ospakuntza', eta poeta bizkaitarraren olerkiak entzuteko aukera egongo da Andoni Salamero poetaren ahotsean, Salamero berak sortutako testuekin tartekatuta.

GARAZI ETXABURU DANTZARIA

Esan bezala, arte diziplina ezberdinak uztartuko dira ikuskizunean eta, hala, Garazi Etxaburu (Ondarroa, 19993) dantzariaren lanaz gozatzeko aukera izango dugu. Euskal Herrian eta nazioartean diharduen dantzari bikaina da Etxaburu. Besteak beste, Poloniako *Baltic Dance Theatre* eta Donostiako *Dantzaz* konpainiako kide da.

Musikari dagokionez, euskal folkloreko obrak entzuteko aukera izango dugu, Aitor Biain-Bidartek zuzentzen dituen *Ganbara* eta *Hots* abesbatzen



Upain txakolindegiaurrealdean izango da ikuskizuna. *Ganbara* eta *Hots* abesbatzez gain, Garazi Etxaburu dantzariak eta Andoni Salamero poetak parte hartuko dute.

eskutik, Amaia Zipitria piano-jolea lagun dutela. Ganbara Faktoriak mimo handiz zaintzen du beti euskal folklorea, euskal doinuen interpretazioan bikaintasuna bilatuz, eta ikuskizun hau ere horren adibide izango da.

BI ESTREINALDI

Azpimarratzekoa, gainera, Ganbara Faktoriaren enkarguz Eva Ugalde eta Paula Olaz musikagileek ikuskizun honetarako konposatutako obra bana estreinatuko direla. Olazek *Handia* eta

Errementari bezalako filmei jarri die musika, besteak beste, eta Ugalde Ganbarakoen ohiko kolaboratzailea da eta erreferentea abesbatzen musikan. Modu horretan, Ganbarak ekarpena egin nahi dio euskal musika korolari, eta aitortza emakume konposatzaileen lanari.

Txakolinaren Ospakuntza ikuskizuna udal Kultura sailak antolatzen duen 'Kalean' egitarauaren barruan dago, eta sarrera dohainik izango da. 300 bat lagunentzako tokia egokituko dute.

Musika bandaren denboraldiko azkena John Williams-en omenez

Historiako soinu-banda ospetsuenetakoen -Jurassic Parck, E.T., Harry Potter, Star Wars, Super Man- egilea da Williams
Plazako frontoian (22:30) izango da kontzertua, ekainaren 15ean

John Towner Williams (New York, 1932) musikagile eta orkestra zuzendari handiari eskainitakoa izango da musika bandaren 2023/2024 denboraldiko azken kontzertua.

Williamsen izena letra larriz idatzita dago zinemaren historian. Bost alditan irabazi du *Oscar* saria eta ehundik gora filmetarako soinu-bandak konposatu ditu. Zalantzarik gabe, XX. mendeko orkestra-musikak asko zor dio Williamsi eta Oñatiko musika bandak bere omenalditxoa eskainiko dio haren pieza ezagunenetako batzuk interpretatuz: *Jurassic Parck*, *Selections from E.T.*, *La lista de Schindler*, *Harry Potter*, *Star Wars*, *Super Man* eta *Jaws*.

Ez-ohiko toki eta orduan izango da kontzertua: plazako frontoian, gaueko 22:30etan. Kontzertua dohanik izango da, ohi bezala, baina sarrera eskuratu behar da Txokolateixan.



2€-tan ikusi ahal izango dute zinea 65 urtetik gorakoek larunbatetan

Espainiako Kultura Ministerioak sustatzen duen 'Cine Senior' kanpainarekin bat egin du Oñatiko udalak eta, horrenbestez, **larunbatetako** zine emanaldietara (**19:30** edo **22:00**) doazen 65 urtetik gorako ikusleek 2€ soilik (normalean 5€ balio du) ordaindu beharko dute. Sarre-**ra** takilan erosi beharko da, nortasun agiria erakutsita; on-line erositakoetan ez da deskonturik aplikatuko.

Goi mailako kontzertu sinfonikoa Aequus Ensemble orkestraren eskutik

Beethoven, Elgar eta Wagner-en obrak interpretatuko ditu
Parrokian (19:00) izango da kontzertua, ekainaren 16an



Argk.: Santi Mendiola

Zorionekoak, Oñatiko musika klasiko zaleak. Izan ere, goi mailako kontzertu sinfoniko bidez gozatzeko aukera izango baitute ekainaren 16an, Mikel Goiaingeruaren parrokian. Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen Aequus Ensemble orkestrak 'Luctari' (Borrokatu) eskainiko baitu, L.V. **Beethoven**-en (1770-1827) 3. *Sinfonia 'Eroika'*, R. **Wagner**-en (1813-1883) *Sigfridoren idillioa* eta E. **Elgar**-en (1857-1934) *Serenade for Strings* obrak biltzen dituena. Kontzertu honetarako Aequus Ensemble orkestrari haizezko instrumentuak eta perkusioa batuko zaizkio, 60 pertsonako taldea osatuz. Benetako orkestra sinfonikoa. Sarrerak (8€) Txokolateixan eta www.oñati.eus atarian eskuratu ahal izango dira.

Ganbara Abesbatza Artziniegan

Oñatiko Ganbara Abesbatzak Artziniegako musika ziklo entzutetsuan parte hartuko du ekainaren 14an. Zortzigarren edizioa du aurten Artziniegako musika klasikoko zikloak, eta sei kontzertu egongo dira guztira (www.mendietakultura.com). Ganbarakoek 'Memorandum' izeneko programa abestuko dute, Errenazimenduan hasi, Erromantizismoarekin jarraitu eta XXI. mendeko musikara eramango gaituen bigaia musikala eskainiz. Ar-**teko** santutegian, 20:00 (7€).



'GOAZEN' KANTARI

Ganbara Faktoriako harrobiko talde guztiek -Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxo, Hasiberriak eta Ikastetxeak Kantari- 'Uda, Goazen kantari' emanaldia eskainiko dute **ekainaren 9an, Santa Ana** antzokian (**19:00**), Aitor Biainek eta Aitor Garitanok zuzenduta, Amaia Zipitria piano-jolea lagun dutela. Goazen telesailko kanta ezagunak abestuko dituzte. Sarrerak (5€) Txokolateixan eta www.oñati.eus.

'34 LEIHO AFGANIAR'

**Bidaia
esperimental
Afganistanen
barrena**

**Uztailak 3, asteazkena,
Lazarraga parkean, 19:00**




Oñatiko EREI elkarteak antolatuta, Elena Yaqubee musikari eta aktibista afganiarraren eta Fabio Joel Tunno musikari, antzezle eta kultura ikerlari italiarraren '34 leiho afganiarrak' emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu uztailaren 3an (Lazarraga parkean, 19:00etan).

Afganistanek dituen 34 probintzietan barrena bidaiatu, eta ahaztuta dagoen lurralde hartako kultura, tradizioa, musika eta istorio desberdinak deskubritzeko aukera izango dute ikus-entzuleek. Musika, poesia, istorioak, argazkiak eta bideoak uztartzen dira emanaldian zehar, eta gerraz, biolentziaz, emakumeen eskubideez, errefuxiatuen errealitateaz, itxaropenez, ametsez... ariko dira.

Afganistanen gertatzen ari denaren errealitate gordina erakutsi, biolentzia eta zapalkuntza kondematu, eta,aldi berean, itxaropenaren hazia zabaltzea da emanaldiaren helburua, arteak mundua astintzeko eta berreraikitzeko duen ahalmenaz baliatuta. Emanaldia udal Kultura sailaren 'Kalean' egitarauaren baitan programatu da eta dohainik izango da.


Udako 'Biblioporrak' gida laster kalean

Ekainaren bukaeran banatuko da etxe guztietara Debagoieneko udal liburutegiek Aramaio eta Legazpikoarekin batera, prestatu duten **Biblioporrak** gida.



Ohi bezala, adinka sailkatutako liburu, film eta disko gomendagarriak aurkituko ditugu bertan, eta udan denbora libre gehiago izaten dugunez, amets egiten, informatzen eta kulturalki aberasten jarraitzea animatu nahi gaituzte liburutegietako arduradunek. "Oporretarako maleta egiten ari bazara, ez ahaztu mimoz aukeratutako liburu hauetakoren bat sartzea. Eta, edozein arrazoiengatik oporrik gabe geratzen bazara, ez ahaztu irakurketak leku askotara eraman gaitzakeela".

Arregi eta Tatieg Gipuzkoako txapelketara



Txinparta bertso eskolak bi ordezkari izango ditu irailetik aurrera jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, Mainer Arregi (705,5) eta Aitor Tatieg (657) izan baitira maiatzean jokatu den sailkapen fasean puntu gehien lortu zituzten 34 bertsolarietako bi. Arregik 'B' multzoko puntuaziorik altuena lortu du. Urko Arregik (610,5) eta Urko Egañak (590,5) ezin izan dute txapelketarako txartela eskuratu.


**carpintería
GARIBAI
aroztegia**
 Mota guztietako zurgintza-lanak
 Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

smk
 san miguel kooperatiba
 943 781 217
 kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop




2024ko Haurren danborrada

Hasi dira, jada, irailaren 21ean egingo den haurren danborrada prestatzen. Aurten-goan 2015/2016an jaiotako haurrak irten ahal izango dira. Danborra jotzen irten nahi dutenek beheko QRan (1) aurkituko duten formularioa bete behar dute, eta gastadore gisa parte hartzeko, beste QRko formularioa, ekainaren 12a baino lehen. Gastadore irteten direnekin irteera bat antolatuko dute zalditegira



(1) eta (2) formularioak

Elkar Heziko ikasleak sarituak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatzen duen ETI-KASI programa irabazi dute Elkar Heziko Batxi-1eko ikasleek 'Gernika-2024' ikus-entzunezkoari esker. Etikari eta giza eskubideei buruz ikaslea da programaren helburua, eta Elkar Heziko ikasleek Picassoren margolana oinarri hartuta bederatzi giza eskubideren inguruko lan-keta egin dute. Sari moduan, Poloniara bidaiatzeko aukera izango dute ekainaren 17tik 20ra, eta, besteak beste, Auschwitz bisitatu eta gizateriak bizi izandako sarrasirik lantzenetakoa ezagutzeko aukera izango dute.

KULTUR ETXEKO TAILERRETAKO IKASLEAK

"Entretenu, erlaxatu eta sormena lantzeko aukera ematen digu"

Kultur etxeak antolatzen dituen ikastaroen harrera bikaina izan dute aurten ere. Haur, gazte eta heldu, denera 159 lagunek parte hartu dute, eta, hain zuzen ere, 'beterano' horietako batzuen ikuspuntuak bildu nahi izan ditugu: motibazioak, helburuak...

Azpimarratzeko modukoa da, esaterako, Tere Zubiaren kasua; 90 urte beteak dituen arren, bera izaten omen da pintura saioetara iristen lehena. "Gustura etortzen naiz, bai. Ez naiz margolari ona, baina asko entretenitzen nau; etxetik irten, jendearekin egon...

Edozer gauza, telebistari begira geratzea baino". Bixente Elgero da pintura taldeko beste beteteranoetako bat. Asko disfrutatzen duela aitortu digu. "Teknika ikasi arte pittin bat kosta egiten da, baina niri, behintzat, asko gustatzen zait". Jesus Mari Arzuaga duela lau urte hasi zen eta gustora dabil. "Irakasleak animatzen nau gauzak probatzera, eta gauza berriak ikasten ari naiz". Rosarito Beitia ere gustura dabil eskulan dekoratiboetan. "Sormena lantzen laguntzen du. Oso aberasgarria eta entretenigarria da".

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lantzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI



(*) Itten: arrastua, pista

>> URRUSULAKO KONTUAK (IX)

Eskolako gorabeherak



Eliza gaiñeko lehenengo pisuko gela batian eguen eskolia, eta auzotar guztiak han ikasten euen hamar edo hamabi urtera arte.

> Roberto Altuna

Azuak baeukan be bere eskolia, oraindiok hantxe daguen eliza gaiñeko lehenengo pisuko gela batian, eta auzotar guztiak han ikasten euen hamar edo hamabi urtera arte. Gero, mutikuak, haundixak egitten ziranian, herrira, unibersidade zaharrian egozen maristetara etorten ziran urte pare bat-edo egittera. Neskak, berriz, mojetara edo lanera: umezain, kriada edo taillerren batera faten ziran.

Orduko eskoliarekin danak akordaitten dira: “eskolan gure garaiko maisuak Don Ziriako eta ‘Maistrotxo’ izan ziran, hogei bat neskatilla-mutiko ibiltten giñan eskolan danok batera nahasi. Nere garaiko maisua Don Ziriako izan zuan eta eskolia euskera hutsian emuten xuan, baiña gero izan zittuan kontuak, Urrusulatik maristetara etorri eta han, berriz, dana erderaz eta ezin tautik be entendi!! Auzo-saliaren azpitan eguen lokaltxo baten bizi zan ‘Maistrotxo’ maisua, auzo-salako zoruan eguen tranpilla batetik sartzen zan bertara eta han egitten eben bere bizimodua, lo eta dana”, kontau dau Jabier Larreak.

Eta ondorenguk erdera hutsian erakutsi oskuein. Leongo, Avilako eta Galiziako maistra batzuk be pasau ziran Urrusulatik, eta beste batzuk be bai, guztira zazpi bat maistra, gehixenak urte pare baterako etorri eta Garaikuan egoten ziran

apopillo. 'Maistrotxok' erderaz egitten eben eta honela esaten gotsan: "maestro tengo que salir afuera", eta harek erantzun: "¡Envidia puñetera!"... Ondo astinketan ginduen; orain balitza...! Leongo Nieves izeneko maistra bat Madalenako eskolan egon zan geruago. Euskeria Don Ziriakok bakarrik ibilli eben eskolan, beste danak erdera hutsian eta euskeria debekauta eguen eskola barruan; hori egixa bada be, ez oskuen zigorrik jarten geure artian euskeraz egittiarren. Erderaz irakurten geben eta ezkeben jakitten irakurritakuak zer esan gura eben. Gure arreba Terek erderaz ikasi eben guardazibillekin. Euren etxetik pasaitterunzkuan egonaldixak egitten zitxuain barriketan eta halaxe, berez, ikasi eben erderaz", jarraitu dau Jabierrek.

Barrenetxeko Markos Barrenak, berriz, gaixa mentauta hauxe kontau eben:

"Abadietan Don Ziriako ezagutu ñuan nik gehixen, eta berak esaten xuan neu nintzala berak lehenengo bautizautako umia. Denpora hartan hemen egonalditxo bat egin eta Aldabara-edo, hor, Tolosa aldera, bialdu xuain; gero berriz etorri zuan Urrusulara eta egin zitxuan hemen beste hamabi bat urte; bere arrebia eta famelixia be asko egoten zittuan berarekin.

Abadia eta maisua pagau egitten zittuan; abadiari eruaten xakuan olatak (opil mehia) egun seiñalau batzuetan eta garixa eta artua be bai. Maisuari, berriz, auzuak diru apurren bat eta garixa eta artua etxe bakoitzetik faten ziran neskatilla-mutikuen eta aurretik onartutako kantidadien erabera: etxe batetik bat faten bazan: bi imillaun; bi baebiltzen: hiru imillaun, eta toperaiño bete arte... Maisuak eskola onduan xakuan oillategi txiki bat, eta han eukitten zitxuan oilluak, arrautzetarako, eta oillaskuak, berriz, gizendu eta saltzeko. Oillasko mordotxua hazten zitxuan.

Don Ziriakok alde egin ondoren, beste abade gazte bat etorri zuan, Jose Maria Landa, eta honen ostian agustiñuak eta fraidiak, baiña honaik domeketan etorten zittuan, emuten zitxuain bi meza edo orduan izaten ziranak, eta gero auzoko baserriren baten bazkaldu eta faten zittuan. Honaik etzittuan Urrusulan bizi izan.

Eskolia Urrusulan bertan Domingo izeneko maisuarekin ikasittakua xakuagu, eta gero beste bi urtetan Oñatiko maristetan be bai, baiña udabarrixan, mariatz aldera, aittak eskolatik etara eta artuak ereittek, garixak jaso, bedarrak igartu eta uda eta udazkeneko lanak egittek, mutikuak etxian geldiketean gintzuan, eta Gabonak aldera, garixak erein ondoren, barriro eskolara, maristetara. Gure kursua motza izaten zuan, lau hillabete ingurukua. Kursua ez hasi ez akabo izaten zuan guria. Erderaz zan eskolia eta gu erdi euskeraz-erdi erderaz ibiltten gintzuan. Maristetan dana erderaz egitten zuan eta guk erderaz hala-hala, baiña entendi bai, entenditten giñuan. Urrusulako gure kinttako bostetik hiru ibilli gintzuan maristetan. Okerrena izaten zuan okerkerixaren bat egin ezker, bostetan barruan geldittu bihar, eta, negua bazan, gero Urrusulara fateko illundu eta bizikletiak argirik ez. Olateraiño zelabait fan bihar izaten gintzuan. Olaten Larrearenian bizikletia itzi eta etxera oiñez faten gintzuan. Larrearenian xakuain leku bat sukaldian, hauxelako bat, onduan ogixa-eta egitten euena eta han auzo daneko bizikletak izten gitxuan. Artian etxegozan bizikleta asko, igual etxe danetan be ez, geruago, motorrak-eta hasi ziranian eta bizikletia pittin bat gehittu edo aumentau zanian, auzuak egin xuan beste lokal edo garaje bat auzoko bizikletak eta motorrak izteko larreatarren etxetik aparte. Orduan, etxietarako burdibidiak oso txarrak zittuan bizikletan eta motorrian ibiltteko".

"Euskeria Don Ziriakok bakarrik ibilli eben eskolan, beste danak erdara hutsian eta euskeria debekauta eguen eskola barruan"

"Abadiari eruaten xakuan olatak egun seiñalau batzuetan, eta garixa eta artua be bai. Maisuari, berriz, auzuak diru apurren bat eta garixa eta artua, etxe bakoitzetik faten ziran neskatilla-mutikuen erabera"

"Gure kursua motza izaten zuan, lau hillabete ingurukua. Kursua ez hasi ez akabo izaten zuan guria. Maristetan dana erderaz egitten zuan eta guk erderaz hala-hala, baiña entendi bai, entenditten giñuan"



AGENDA

AUZOETAKO JAIK

EKAINAK 7-9

OLAKUAKO JAIKAK

Ekainak 7, ostirala:

19:00 Trikitilariak eta Atzeko Kaleko erraldoi eta txorimaloak; 19:30 Euskal hamburgesak; 21:00 Kontzertuak (Estolda, Azken Sustraiak, Bad Sound...).

Ekainak 8, larunbata:

10:30 Haur jolasak; 11:30 'Hauspotu bizitza' kontzertua eta kalejira, Lizargarate trikiti elkartearen eskutik; 12:00 Haurren mendi bizikleta irteera 18:00 Trikitilariak eta Atzeko Kaleko erraldoi eta txorimaloak; 18:30 Talogileak eta erromeria (Obaneuke); 22:00 Korrontzi. Ondoren, Jabi Sound DJ Fest.

Ekainak 9, igandea:

11:00 Txorimaloekin photocalla; Auzoan hildakoen aldeko meza; 12:30 Euskal parrillada; 13:00 Herri kirol erakustaldia; 16:30 MUS txapelketa; 17:00 Oñatz taldeko gaztetxoan dantzak; 18:00 Bertso saioa

ZUBILLAGAKO JAIKAK

Ekainak 28, ostirala:

18:30 Pello basurdearen jaitsiera. Ondoren, erraldoi eta txorimaloak Lizarrako Gaiteruak lagunduta; 19:30 Pala txapelketako finala; 20:30 Barbakoa herrikoia;

22:30 Kontzertuak (Kontralde, Inguma eta Garratz). Ondoren, Bingoa eta DJ Izura.

Ekainak 29, larunbata:

9:00 Mendi martxa; 12:00 Meza; 17:00 MUS txapelketa, haur jolasak, puzgarriak eta txokolatada; Toka txapelketa (16 urte arte); 18:30 'Pello' txorimalo berriaren aurkezpena, Ezpelur gaiteruak lagunduta; 20:00 Disko-festa (Akorde Music Experience) eta mozorro lehiaketarako izen-ematea; 22:00 Disko-festaren jarraipena, mozorro lehiaketako sariak eta Suak; 00:30 DJ Kirrin eta DJ Kepix.

Ekainak 30, igandea:

11:00 Meza; 11:45 Luntxa auzoko jubilatuentzat. Ondoren, dantzariak, omenaldia eta zozketa; 13:00 Pilota txapelketako finalak; 14:00 Auzo bazkaria; 17:00 Zinta-karrera; 18:00 Helduentzako Toka txapelketa eta errifaren zozketa; 20:30 'Pello' basurdeari agurra.

ERAKUSKETAK

EKAINAK 3-16 / 18:00-20:00

Margolanen erakusketa

Kultur etxeak antolatutako ikastaroetako haur eta gaztetxoan (6 eta 17 urte artekoak) margolanak ikusgai. **Kultur etxean**



EKAINAK 9 / 10:30

SAI ARREEN BEHAKETA

Irteera gidatua Aizkorri-Aratzen habiak egiten dituzten hegazti sarraskijale hauen bizimodua eta ohiturak hobeto ezagutzeko. Teleskopioz behatzeko aukera egongo da. Aurrez erreserba egin behar da: 943782894 / 699335183. **Arantzazuko Parketxean**

PUNK-ROCK KONTZERTUAK OLAKUAN ETA ZUBILLAGAN

Punk-rock kontzertu potenteak datoz hurrengo asteetan. Olakuako jaietan (ekainak 7) **Estolda, Azken Sustraiak** eta **Bad Sound** ariko dira, 21:00etan hasita. Zubillagan, ekainaren 28an **Kontralde, Inguma** eta **Garratz** taldeak ariko dira **pilotalekuan** (22:30).



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Isripuak	✓ Etebizitza
✓ Autoak	✓ Oetziak	✓ Aurrekia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Mirón 5, behe
 638 16 79 04
 mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



Kultur ekitaldiei buruzko informazioa
eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



EKAINAK 13, 20 ETA 27

PINTXOPOTEA eta KONTZERTUAK

Ekaineko ostegunetan pintxopotea (kuadrilla ezberdinek egindako pintxoak) eta ondoren kultur ekitaldiak antolatuko dituzte gaztetxean. Ekainaren 13an **Apatxe Sound**-en pintxada, ekainaren 20an **112** taldearen kontzertua, eta hilaren 27an **Basandereak** taldearen kontzertu akustikoa. **Antixena Gaztetxean**

EKAINAK 24-28

Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak

Debagoiena 2030 sareak antolatuta, 10:00-13:00 eta 16:30-20:30. **Kultur etxean**

MUSIKA

EKAINAK 8 / 11:30

'Hauspotu bizitza!'

Trikiti jaialdia. **Olakuan**

EKAINAK 9 / 19:00

'Uda Goazen kantari!'

Ganbara Faktoriako harrobiko taldeen emanaldia. **Santa Ana**

EKAINAK 15 / 22:30

'Top Williams'

Musika bandaren emanaldia. **Plazako frontoian**

EKAINAK 16 / 19:00

'Luctaru'

Aequus Ensemble orkestraren kontzertu sinfonikoa **Parrokian**

EKAINAK 28 / 22:00

Txakolinaren ospakuntza

Musika korala, poesia eta dantza **Upain txakolindegian**

UZTAILAK 3 / 19:00

'34 leiho afganiar'

Afganistango musika, kultura... **Lazarraga parkean**

TAILERRAK

EKAINAK 29 / 10:00-14:00

Familia konstelazioak

'Creciendo con Arte / Artez Hezten' taldek antolatuta. Leku-erreserba egiteko: 628 212 839. **Eltzian**



ZINEA

EKAINAK 7-10

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: SEGUNDO PREMIO (Pelikularik onenaren saria Malagako zinemaldian)

Haurrak: Ez dago emanaldirik



EKAINAK 14-17

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: EI ULTIMO VERANO (Pelikula onenaren sarirako izendatua Cannes-en)

Haurrak: Ez dago emanaldirik



EKAINAK 21-24

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: VIDAS PERFECTAS

Haurrak: Ez dago emanaldirik



EKAINAK 28-UZTAILAK 1

Zine Kluba: Ez dago emanaldirik

Nagusiak: MANOLO KABEZABOLO

Haurrak: Ez dago emanaldirik



Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00),

igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / Ikuslearen Eguna)

Haurrak: Larunbata eta Igandea (17:00)



FARMAZIAK

ANDUAGA

San Lorentzo 3

943 78 21 16

EKAINAK 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27.

UZTAILAK 5, 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1

943 78 01 22

EKAINAK 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30.

UZTAILAK 8 eta 9.

GARATE

Kale Barria 42

943 78 05 58

EKAINAK 12, 13, 21, 22 eta 23.

UZTAILAK 1 eta 2.

JULDAIN

Kale Barria 6

943 78 11 28

EKAINAK 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25.

UZTAILAK 3 eta 4.



MERKATU TXIKIA

ETXE BILA Oñatin bizi

garen 3 langile gara, 3 logelako etxe bila gabiltzanak. Deitu: 627 743 190.

GARAJEA salgai Olakua

16-17A blokeetako beheko solairuan (14m²). Deitu: 943 041 289.

ALOKATZEKO etxe bila

dabilen alaba bakarreko familia gara. Biok lanean. Deitu: 632 696 233.



ODOL ATERALDIA

EKAINAK 14

16:30-20:30, MU-ko Enpresagintza fakult. **Hitzordua hartzeko:** 943 00 78 84.



LANA

Innovation from nature



BEAM H 20 U



**THREE-LAYERED
SHUTTERING PANEL
IRU-PU & STD**



PELLET



LANA S. Coop.
Czech LANA s.r.o
www.lana.eu